

6.- UNITATEA: ETORRIKO DIRENAK

1. ATZERA BEGIRA

HERRIA EZAGUTZEN! egitasmoaren 6. unitatea duzu hauxe, azken unitatea, hain zuzen.

Egitasmoa biribiltzeko zeregina duen unitate honetan, lehenik eta behin, aurreko bost unitateetan landutakoak ekarri eta birgogoratzea izango dugu helburu. Gure herriko historiari begirada azkarra emango diogu, gure egunetara iritsi arte.

Urte hauetan guztietan, aurreko unitateen bidez, gure herriaren garapena ezagutu ahal izan dugu. Haren ondoan, garaian garaiko gure herritarrak nola bizi ziren, zein arazo zituzten, garai bakoitzean hartutako erabakiek herria nola egituratzen joan ziren eta abar jakin ahal izan dugu.

Denbora, ordea, aurrera doa eta harekin batera herria garatuz doa. Herria zentzurik zabalean, hirigintza eta azpiegiturekin batera kulturalki ere garatzen baitoa, gure ondare kulturala osatuz.

Ondare kulturalaren hainbat arlo ezagutu ahal izan ditugu urte hauetan. Guztien artean, eta guztien bilgune eta aterpe dugun euskararen egoera aztertzeko baliatu nahiko genuke unitate hau. Garaian garaian etorritako herritar berriek beste hizkuntza batzuk ekarri dituzte gurera. Soka hori ez da eten, eta gaur asko dira gure herrian hitz egiten diren hizkuntzak.

Haien ondoan biziraun behar du gure hizkuntzak, euskarak. Haren gaur eguneko egoera ezagutu ondoren, harenganako sentsibilizazioa landu nahiko genuke.

Eta azkenik, eta egitasmoa burura eramateko, gure aurrean ditugun ikasleak izango dira bihar-etzi erabakiak hartu eta herriaren martxa gidatuko dutenak.

Gure lana izan da gure aurrekoek eta guk geuk zer egin dugun azaltzea.

Zer nolako herria imajinatzen ote dute edo zein herri motatan bizi nahiko lukete gure ikasleek? Zer herri motarekin egiten ote dute amets?

Horretan sakontzera gonbidatuko ditugu, urte batzuen buruan gure herria nolakoa izan daitekeen irudikatzeko eskatuz.

Zalantzarik gabe guretzat ere interesgarria izango da gure ikasleen artean sortuko dena. Izan ere, aurrera begira jarri eta etorkizuneko herritarrek urte batzuk barru herria nolakoa izango den eta nolakoa nahiko luketen izatea ezagutu ahal izango dugu.

Gure herriaren eta gure aurrekoen ibilbidearen lekukoa pasa dugu, osatu dugu beste kate-maila bat gure herriko historiaren kate luzean.

2. XXI. MENDERAKO TRANTSIZIOA

Mende batek bereizten gaitu gure ikasleetatik. XX. mendeko herritarrek gara gu eta XXI. mendekoak, berriz, haiek.

Ez gaitu, ordea, urte pilak bereizten soilik. Beste garai batzuk, beste bizimodu batzuk ezagutu genituen guk. Bizitzeko modu desberdin hark harreman zuzena zuen herritarren artean garai hartan zeuden harremanetan, herriaren egituraketan, bizitzan, azken finean.

Batez ere, herri industrial batekoak gara, herri langile batekoak gara gure mendekoak. Krisi ekonomiko sakona ezagutu dugunak, hirigintza arazo larriak pairatutakoak, drogaren atzaparrak harrapatutakoak, errepresio bortitza jasandakoak. Horiek guztiek, eta XX. mendearen amaiera ezaugarritu zuten beste hainbat faktorek, ezaugarritu gintuzten neurri handi batean.

Horien guztien ondoan, baina, bidegabekeria sozialaren, gure kulturaren eta euskararen, eta finean bizimodu duinago baten aldeko borrokak indartsuak eta irmoak izan ziren. Gure herriak, eta herritarrok bide batez, gogotik borroka egin genuen alde negatibo haien guztien aurrean oldartzeko eta errealitate hura aldatzen saiatzeko.

Beste aukera eta beste arazo batzuk dira XXI. mendekoak. Haiek marraztutako esparruan jarraitu beharko dugu borrokatzen guk eta, batez ere, gure ikasleek.

Baina noiz esan liteke hasi zela ematen XX. mendetik XXI. menderako jauzi handi hori?

Garaiei mugak jartzea, atakak jartzea, erraza ez izanik ere, XXI. menderako trantsizioaren hasieraren erreferente gisa 70eko hamarkada amaiera hartuko dugu.

Urte haietan, izan ere, biztanleen % 40, 20 urte baino gutxiagokoa zen. Urte

haietan ere, biztanleria % 10 jaitsi zen. Gainera, biztanle haien % 30 lanik gabe zegoen.

Bizi baldintza zail horien aurrean herritarrak ez ziren geldi geratu.

Hortik aurrerako urteak, 80ko hamarkada barne, aztoramen handiko urteak izan ziren. Kultura mugimendu bizi eta indartsua gorpuztu zen.

Herri-gunean eraikirik zeuden lantegiak bota zituzten eta industrialdeak eraiki zituzten. Orube haietan berriro ez eraikitzeke borroka gogorak gertatu ziren.

Protesta eta manifestazio ugariaren aldia izan zen. Ohikoak ziren suzko barrikadak. Protestak arlo politiko eta sozialekoak izaten ziren, batik bat.

Euskararen eta euskal kulturaren alde ere ekimen ugari gorpuztu ziren, Gaztetxea eta Irrati librea sortu ziren. Gazte mugimenduak indarra hartu zuen, baita auzo elkarteek ere. Musika arloan, berriz, garai hartan rock eta punk musika arloak izan zuen gorakadak isla izan zuen gure herrian, musika talde ugari sortu baitziren.

Finean, oso urte biziak eta mugituak izan ziren, aldaketa eta gorabehera handikoak: industria eta jendarte hazkundera – izan zituzten ondorio guztiekin– ekarri zituen herri industrialetik, bizileku den herrira igarotzeko abian zen herria..

JARDUERA: Behatu argazkiak. Zer dakizu horiei buruz?

Koadernoko 3. orrialdea

3. DENBORAREN ARDATZA

Gure herriko historian izandako pasarte nagusienak eta esanguratsuenak biltzen saiatuko gara datozen orrialde horietan.

Horretarako, denbora-ardatz batean kokatu ditugu aipatu gertaerak, garaien hasieratik gaur egun arte, segidan.

Denbora-ardatzaren helburu nagusia begi-kolpe batez denboran barrena gure herriak izan duen bilakaera ikusi ahal izatea da. Ez daude denak, noski. Gure ustez, bilakaeraren arrasto nagusia jasotzeko beharrezkoak direnak ipini ditugu, urteen gainean azkar-azkar salto eginez.

Kontuan izanik itsas azpitik lur-azaleratu ziren Euskal Herriko lehen lurrak direla gureak, oso antzinatik has gaitezke gure herriko historiaren kontaketa. Hori, duela 40 milioi urte gertatu zen. Denboran aurrera joan ahala, ordea, gertakizunak gero eta azkarrago gertatuko direnez, denbora-ardatzaren azken zatia izango da mamitsuena eta trinkoena.

Ardatzari egindako lehen arrastoa, K.a.ko 35000. urtean kokatu dugu. Izan ere, garai hartan, Goi-paleolitoan, Aizpitarteko kobazuloetan bizi ziren gure herriko lehen biztanleak.

K.a.ko 5000. urtean, berriz, Neolitoan, kobazuloetan bizi ziren haiek, eguraldiak epeldu zuela baliatuz, ibaia itsasoratzen zen lur lauagoetara etorri ziren. Garai hartakoek ez zuten soilik etxebizitza aldatu, bere bizimodua ere erabat egokitu zuten baldintza berrietara.

Ondoren, historiaurrea utzi eta historian sartu ziren gure arbasoak.

Gure aroko II. mendean iritsi ziren erromatarrak Oiartzun bailarako barrutietara. Haiengandik jasotako ikaspenei esker, gure aurrekoen bizimoduak beste irauli bat izan zuen. Itsas portuak eskainitako abantailaz baliatuz, gure herria Oiartzun bailarako gainerako auzoetatik bereizten eta nabarmentzen hasi zen.

1203an, Oiarso bailara zatitu zen lehen aldiz. Hondarribia, Urantzu-Irun, Donibane eta Lezok independentzia lortu zuten.

Hurrengo arrastoa, 1320an topatuko duzu, Gaztelako erregek Hiri-Gutuna eman zioeneko, hain zuzen.

Gertaera horrek, gure herria harresitu eta betirako Oiartzun bailarako beste auzoetatik betiko banatzeaz gain, aldaketa handiak ekarri zizkion garai hartako gure herrikideei. Besteen artean, herriari izena aldatu zion gutun hark.

Portuaren arrimuan herrian garatu zen nekazaritzari, merkataritzari eta burdinola eta ontziola industriari esker, hurrengo urteak garai emankorrak eta oparoak izango ziren gure herriarentzat.

1495ean, bigarren aldiz banatu zen Oiarso bailara. Gure herria, alde batetik, eta Oiartzun osatu zuten Elizalde, Altzibar eta Iturriotz, beste aldetik, gelditu ziren.

1545ean Ugarritzako zubia eraiki zuten herria Ugarritzako ontziolarekin eta

Lezo eta Donibanerekin komunikatzeko.

Nafarroako erresumaren lurak izan ziren gureak, harik eta Gaztelako erregek gaur egun, gutxi gorabehera, Gipuzkoako lurrek osatzen duten eremua konkistatu zuen arte. 1512an, Gaztelak Nafarroako erresuma konkistatu zuen. Urte haietan guztietan eraso ugari eta hainbat erreketak pairatu zituen gure herriak. Nafarrek Frantses armadaren laguntzaz bereak izandako lurak berreskuratzeko ahaleginean, eta, gaztelarrek konkistatu zituzten lurrei eusteko saiakeran. Borroka haien guztien ordezkari, 1638an gertatutakoa marraztu dugu denbora-ardatzean, izan zen bortxagatik. Haren ondoren, herriaren kokalekua aldatzea erabaki zuten eta herri berriaren planoak egin eta eraikitzen ere hasi ziren.

Garaiak ez baitira betirako izaten –ez onak eta ez txarrak–, urte ilunak iritsi ziren ere gurera. Hurrengo arrastoak, XVIII. mendean egindakoak, hain justu, hori adieraziko du. Izan ere, mende horretan, portuaren gain behera etorri zen, itsasadarra lokatzez bete zelako, beste arrazoien artean. Herriko ekonomiak, eta harekin herriko bizimoduak eta herritarrek, garai berriek ekarritako aldaketak barneratu eta berrantolatu behar izan zuten.

1833ari beste arrasto bat egin diogu, I. Karlistada markatzeko, hain zuzen. Garai aldaketa sakona zetorren berriro gure herrira. Urte gatazkatsuak eta zailak izango ziren ondoren etorri zirenak ere.

1845ean aurkituko duzu hurrengo marra, *Fabrika Handia* zabaldu zuten urtea gogoraraziz. XIX. mendearen erdialdean garapen industrialaren prozesuari ekin zitzaion. Herria itxuraldatu zen. Mendea aurrera joan ahala, industriek gero eta espazio handiagoa hartu zuten herriko lurretan. Etxeak, lantegiak, denak anabasan kokatzen ziren herri-gunean. Industriaren beharrak asetzeko kanpotik etorri zen jende asko gure herrira bizitzera. Horrek guztiak eragin handiak izan zituen herriaren bizimoduan, herria txiki izatetik herri handia izatera pasatu zen urte gutxian.

Hurrengo marka, 1846aren parean ipini dugu, Norteko trenaren inaugurazioaren data baita.

Herria astindu zuen beste gerra batek egin du hurrengo marra 1872aren parean: II. Karlistadaren data da hori, zehazki. Gerra hark ondorio ilunak ekarri zituen gure herrirako, besteen artean Foruen galera.

1881ean jaio zen *Xenpelar* handia. Urte haren parean kokatu dugu beste arrastoa, historian ekonomiak, gerrek eta azpiegiturek haien arrastoa egin duten bezala, kulturak eta bizitzako beste hainbat alorrek ere egin baitute

berea, gure herriari eta herritarroi ekarpena eginez eta izaeran eraginez.

30eko hamarkadan uholdeak izan ziren garaiko protagonistetako batzuk. Ia urtero uholde bortitzak pairatu zituen herriak, galerak izugarriak izan ziren eta hildakoak ere izan ziren. Herria handitu behar hartan, padurak eta gainerakoak idortu zituzten eta, noski, itsasoak berea zena eskatu zuen. Urte luzeetako eztabaidaren ondoren, beste neurri batzuen artean, ibaiaren arroa lekuz aldatzea erabaki zuten.

1936an gerra izan zen, *36ko gerra*. Gerrak bezain ondorio lazgarri eta mingarriak ekarri zituzten Frankismoaren diktadura pean bizi behar izan genituen hurrengo 40 urte ilunek. Bizitzako eta kulturako alor guztietan izan zuten eragina.

60ko hamarkadatik aurrera jende uholde izugarria etorri zen, batez ere Espainiatik. Hainbeste etorkinen etorreraren aurrean herria txiki geratu zenez, mendian gora eraiki behar izan zituzten hainbat auzo.

1979an lehen aldiz egin ziren hauteskundeak, 36ko gerraren ondoren, udaleko ordezkariak hautatzeko.

80ko hamarkadan gogor jo zuen krisi ekonomikoak. Herriko lantegi asko itxi egin ziren eta langabetuen kopurua izugarri hazi zen. Urte gatazkatsuak eta oso mugituak izan ziren.

90eko hamarkadan, hirigintza arloarekin zerikusia zuten hainbat jarduera garrantzitsu egin ziren. Plazak eta parkeak eraiki ziren utzita eta nahiko egoera tamalgarrian zeuden orubeetan, erdialdeko hainbat kale oinezkoentzako gunek bihurtu ziren, kultura arloko eta beste hainbat arlotako azpiegiturak eta abar eraiki ziren eta abar. Herria eta herritarren arteko harremanak beste modu batekoak izateko bidean ziren.

2000 urteko arrastoak, mende eta milurteko berriaren arrastoa markatzen du. Herriaren eta herritarren bideak beste norabide bat hartu du, globalizazioaren ondorioz, behar bada, munduari gehiago begira. Etorkin asko, Espainiako estatutik kanpokoak, etorri dira. Gure kaleetan, euskara eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza asko entzuten dira egun. Ohiturak ere asko aldatu dira, oro har.

Koadernoan, gure herriko historia jasotzen duen denbora-ardatza aurkeztu dugu. Bertan, gure iritziz historia horretako gertaera garrantzitsuenak kokatu ditugu.

Denbora-ardatzaren inguruan sakon dezakegu ikasleekin: zer den, zertarako balio duen, nola egiten den, zein beste izenekin ezagutzen den, koadernoan aurkezten dena irizpide horien arabera egin ote den, zein gertaera kokatuko litzuketuen haiek eta abar.

Horien guztien inguruan aritu ondoren, ikasleek beren denbora-ardatza osatzea proposatu nahiko genizueke. Horretarako, ardatzak egiteko sarean aurki ditzakezuen hainbat aplikazio dituzue jarraian: ardatza, IKT baliabideak erabiliz osatu nahiko bazenute.

Behar bada ezagutuko duzue aurkeztutako aplikazioen bat. Hala ez balitz, lehenarekin aritzea proposatuko genizueke, *timecoast* hain zuzen, errazena delakoan.

Lan hori egiteko ikasleak binaka jar ditzakezue. Bikote bakoitzak denbora-ardatza egiteko gaia aukeratu du. Ondoren, ardatza nola egin eta zein elementurekin osatu eztabaidatu beharko dute.

Gaiak irekian proposa geniezazkieke edo aukera zerrenda bat eskain diezaiekegu, adibidez: ikastetxearen historia, beren biografia, herriko eraikuntza, lantegi, leku edo pertsonaiaren baten biografia eta abar.

Beste aukera bat, koadernoan eskaini dugun denbora-ardatza IKTen bidez egitea litzateke.

JARDUERA: Aztertu gure herriko [denbora-ardatza](#). Ondoren, osa ezazue zuek zeuona ordenagailua erabiliz. ([denbora-ardatzak](#)).

Koadernoko 4.eta 5. orrialdea.

4. IKASITAKOA GAINBEGIRATUZ

Denbora-ardatza baliagarria da herriko historia eta gertaera garrantzitsuenak denboran kokatzeko. Hori aztertu ondoren, aurreko unitateetan ikasitakoa gainbegiratu eta birgogoratzeko aukera zabalduko dugu segidan.

Horretarako, aurreko unitateak berreskuratu eta banan-banan ikus ditzakegu. Hautu hori eginez gero, era berean, norberak urte horietan guztietan izan

duen garapena ikusi ahal izango du: idazketa aldetik, hizkuntza idatziaren garapena eta abar.

Banaka egin beharrean, talde txikiak egin daitezke, unitate adina, eta talde bakoitzari gai edo unitate baten laburpena egiteko eska geniezaioke.

Beste aukera bat, bibliografian aurkeztu dizkizuegun ikus-entzunezkoak erabiltzea izan liteke.

Alde batetik, *Erreterria barne-barnetik* DVDa duzue. Beste aldetik, ETBko emanaldi baten lau zatiak dituzue. Zati bakoitza aldi jakin bati dagokio.

Hala, emanaldi horretako lehen zatiak, batez ere, historiaurrea, erromatarrek eta Erdi Aroa lantzen ditu.

Bigarren zatiak, berriz, herriak jasandako erasoak, industrializazioa eta herriko hainbat pertsonaia.

Hirugarrenak, aldiz, 36ko gerra, uholdeak eta beste zenbait pertsonaia ezagun ezagutzeko parada eskaintzen du.

Eta, azkenik, laugarrenak, beste hainbat pertsonaia ezagun aurkezteaz gain, herriko kultur taldeak eta euskara taldea aurkezten ditu.

5. HISTORIAURREA

Gure inguruetakako lurak Euskal Herrian itsas azpitik lur-azaleratutako lehenak direla jakin genuen lehen unitatean. Fosilak ezagutu genituen, baita herriko lehen biztanleen bizitokia izan ziren Aizpitarteko kobazuloak ere.

Ondoren, giroa epeldu zela baliatuz, bizitokia aldatu zuten eta ibai eta itsaso inguruko lur lauagoetara jaitsi ziren. Bizimodua garaian garaiko baldintza eta bitartekoetara egokitu behar izan zuten.

Burni Aroa etorri zen gero. Monumentu megalitikoak eraiki zituzten, eta haietako dezente ditugu oraindik gure inguruetan ikusgai.

Horiek guztiak ekarri nahiko genituzke ikasleen gogoetara.

Ondoren, edo aldi berean, egokien ikusten duzuen moduan, hainbat ariketa egiteko proposamena luzatu dizuegu.

JARDUERA1:

- Nola sortu ziren gure lurrak eta mendiak?
- Nola dugu ordukoaren berri?
- Nola irudikatzen duzu haien bizimodua?
- Giroak epeldu zuenean, kobazuloak utzi eta beste bizitoki batzuk eraiki zituzten. Non? Zein aldaketa izan zituen beraien bizimoduak?
- Zein monumentu megalitiko ditugu herrian?

JARDUERA2: Ezabatu historiaurreko garaia ez dagozkion hitzak:

Aizpitarte, txakurra, Neolitoa, mamuta, argazki, fosil, traktore, udaletxe, kobazulo, teila, suharri, plastiko, aizkora, txamarra, bisonte, makarroi, arku, bizikleta, dinosauro, fruitu biltzaile, liburu, larru, hartz, diru, trikuharri, Arditurri, taberna

Koadernoko 6. orrialdea

6. ERROMATARRAK, ERDI AROA

Atal honen edukia, NOR GINEN eta ITSAS BAZTERREAN lehen bi lan koadernoetan aurkituko duzu.

Proposatzen dizuguna, Erromatar garaian gure herriak (eta bailarak, batik bat) izan zuen eragina eta haren garapenean erromatarrek izan zuten esku-hartzea aztertzea da.

Bailara osatzen zuten auzoak zein ziren gogoratu ondoren, Gaztelako erregek haietako bati eman zion Hiri-Gutunak herrian, eta baita bailaran ere, izan zituen ondorioak aztertuko ditugu.

JARDUERA 1: Zein eragin izan zuten erromatarrek gure bailaran?

JARDUERA 2: Zein lau auzok osatzen zuten Oiartzun bailara?

ELIZALDE	ITURRIOTZ	ELIZALDE	ALTZIBAR
UGALDETXO	LEZO	LEZO	ITURRIOTZ
ALTZIBAR	ALTZA	ORERETA	ELIZALDE
ORERETA	ORERETA	ITURRIOTZ	ORERETA

JARDUERA 3: Gaztelako erregek Hiri-Gutuna eman zion Oreretako auzoari. Zein aldaketa eragin zituen horrek eta zein agindu ezarri zituen?

Koadernoko 7. orrialdea

7. ERDI AROA

ITSAS BAZTERREAN unitatea landu genuenean ikusi genuen Erdi Aroan herriak orain duen itxura eta jarduera erabat desberdinak izan zituela. Elementu haiek guztiak gogora ekarri nahian, hainbat jarduera proposatuko dizkiegu alde horietan sakontzeko. Garai horrek, aurrekoaren aldean, baditu oraindik herrian zutik dirauten Erdi Aroko eraikuntza eta aztarnak.

JARDUERA 1: : Zein ziren, zure ustez, Erdi Aroan herriak zituen bereizgarri nagusienak?

Nola bizi ziren garai hartako herritarrak?

JARDUERA 2: Ba al dago Erdi Aroko elementuren bat gure herrian? Ikertu eta ipini ahal dituzun guztiak!

Koadernoko 8. orrialdea

8. HERRIA HANDITUZ

Erdi Aroan eta hurrengo denboretan, gure herriak maiz jasan zituen erasoak. Haietako zenbait oso bortitzak izan ziren, herria ia suntsitzerainokoak.

Egoera horren aurrean, ia birrintzear zen herria berreraiki edo hura utzi eta leku babeseagoan berria eraiki erabaki behar izan zuten gure aurrekoek.

Basanoaga gainean herri berria egitea erabaki zuten. Baita planoak egin eta eraikuntza lanak hasi ere. Hainbat gorabeherak, ordea, bertan behera utzi zuten egitasmoa.

Etengabe handitzen ari zen herriari aterabidea eman behar izan zioten behin baino gehiagotan, halere.

Batean harresiak bota, bestean herriaren zabaldura egin; pixkanaka, urtez urte, gaur duen itxura hartuz joan da. Bidean, gure ikasle gehienak bizi diren

auzoak eraiki ziren. Badu bakoitzak bere jatorria eta bere historia, haietan ikertzea eta sakontzea proposatu nahi dizuegu.

1833ko urriaren 3an, Lehen Karlistaldiari hasiera eman zion altxamendua gertatu eta, karlisten eraginkortasunak gora egin zuen herrialde osoan.

JARDUERA 1: Zer esango zenuke marrazki hori ikusita?

Eta beste honi buruz?

JARDUERA 2: Nolakoa izan da gure herriaren garapena Erdi Arotik gaur arte?

JARDUERA 3: Kontatu zure auzoko jatorriari eta garapenari buruz dakizuna.

JARDUERA 4: Aukeratu zure auzoaren bista orokorra eskaintzen dizun kokaleku egokiren bat eta egin klik zure auzoari.

Koadernoko 9. orrialdea

9. INDUSTRIALIZAZIOA

Itsas portutik hurbil egoteak, lantegiak jartzeko mugatik legeak ezarritako gutxieneko distantziara egoteak, tren geltokia izateak, ongi komunikatuta egoteak eta beste hainbat alde bat egiteak bultzatu zuten industrializazioa gure herrian, batez ere Karlistaden ondoren.

Luzea eta sakona izan daitekeen gai horren gainean, puntu nagusienak aipatu nahi izan ditugu, ikasleek berek dakitena edo bildu dezaketen informazioa baliatuz nahi adina sakon dezaten. Helburu horrekin proposatu ditugu ondorengo jarduerak.

JARDUERA 1: Hainbat faktorek eragin zuten gure herrian industria hain indartsu errotu zedin. Markatu zeintzuk.

Itsas portua zuen. Mugatik gertu zegoen. Baserrietan ez zen nahiko lanik.

Aireportutik hurbil zegoen. Dirudun jendea zegoen. Boterea ematen zuen.

Lehengai asko zituen. Orube asko zeuden. Modernizatu nahi zuten.

Kea gustukoa zuten. Errepidea igarotzen zen. Bertan ekoiztu nahi

zuten.

JARDUERA 2: Zein ondorio izan zituen industrializazioak herrian eta herritarrengan?

JARDUERA 3: Gogoratzten al duzu zein lantegi zeuden herrian?

JARDUERA 4: Lehenagoko argazkia duzu hor, ezabatu ez dauden elementuak. Ipini beste aldean gaur egun zer dagoen haren lekuan.

Koadernoko 10. orrialdea

10. NAHAS MAHASEAN

Asko dira aurreko bost unitateetan zehar herriko ondare kulturalari buruz, hitzaren zentzurik zabalean, landu ditugun gaiak.

Horietako batzuk besterik ez ditugu ekarri ETORRIKO DIRENAK 6. unitate honetara, ordea: gure ustean garrantzitsuenak direnak, alegia.

Nahas-mahas izendatu dugun koadernoko orrialde honetan, aipatu gabe gelditu zaizkigunen gaineko ibilbide azkarra egitea proposatu nahi genizun.

JARDUERA: Asmatuko al zenuke aukeren artean zein den egokia?

- Hainbat urtetan hondamendiak izan ziren gertakari naturalen ondorioz:
Lurrikarak eta uholdeak. Uholdeak. Sumendiak.

- Oihartzun ibaiaren arroa desbideratu zuten:

Udal langileek. Ingeniari trebe batzuek. Langile batailoietako jendeak.

– *Gure herriko mendiak dira:*

Urdaburu, Bianditz.

Zaria, Arramendi.

Jaizkibel, Bizarain.

- *Udalerriko errekek isurtzen dira:*

Bidaso ibaira.

Oihartzun ibaira.

Oihartzun eta Urumea ibaietara.

- *Azken hamarkadetan baserri gehienak:*

Desagertu dira.

Berreraiki dira.

Landetxe bihurtu dira.

- *Gure jairik nagusienak dira:*

Danborrada.

Halloween.

Madalen jaiak eta inauteriak.

– *Ez da gure herriko kirol elkarte baten izena:*

<i>Urdaburu.</i>	<i>Easo.</i>	<i>Beti-ona.</i>
<i>- Aspalditik, jatea bertako ohitura dugu:</i>		
<i>San Blas opila.</i>	<i>Errege opila.</i>	<i>San Marko opila.</i>
<i>- Ez da gure herriko bertsolaria:</i>		
<i>Xenpelar.</i>	<i>Saiburu.</i>	<i>Bilintx.</i>
<i>- Zein gerratan eraiki zituzten San Marko eta Txoritokieta gotorlekuak:</i>		
<i>I. Mundu Gerran.</i>	<i>Karlistadetan.</i>	<i>Gerra Zibilean.</i>

Koadernoko 11. orrialdea

Lan-koadernoan proposatutako galderei jarraiki, ikasleei beste batzuk asmatzeko eska diezazkiekegu lehiaketa bat egiteko. Galdera motei dagokionean, bi aukera daude:

- a. koadernoan bezalakoak sortzea; hau da, “test” edo “trivial”gisakoak.*
- b. Galdera irekiak sortzea, erantzunik eskaini gabe.*

Lehiaketa gelakoen artean edo gelen artean antola daiteke. Nahi izanez gero, gaia lantzen ari diren ikasle txikiagoentzat prestatzeko eska diezaiekegu.

JARDUERA2: Lehiaketa antolatu gelan: Taldea zatitu ondoren, aztertutako gaiei buruz eta hainbat alde orokorri buruz orientabideak eskain diezazkiekegu: galdera zailak presta ditzatela, ikasitako guztia kontuan izan dezatela eta abar.

Talde bakoitzari galdera kopuru zehatz bat eska diezaiokegu: hamar bat, adibidez. Ondoren, zailtasunaren arabera sailka genitzake: zailtasun handikoak, ertainekoak eta txikikoak.

Lehiaketarako ikasleak taldetan bana ditzakegu eta hainbat arau finka ditzakegu: puntuazioa desberdina izango da zailtasun mailaren arabera, taldekide guztiek erantzun beharko dute eta abar.

Kooperazio egitura saritu nahi badugu “x” puntu batu edo kenduko diegu erakutsitako lankidetzak mailaren arabera.

Azkenik, ikasle guztiek, banaka, galdera guztiak erantzungo dituzte. Horri esker ohartuko dira hasieran zekitena baino askoz gehiago dakitela. Jabetuko dira, gainera, elkarlaguntza bitarteko eta tresna ona dela gauza askoz gehiago ikasteko.

11. IRTEERA: KULTURAREN PLAZA

1. JUAN FRANTZISKO PETRIRENA BERRONDO, *Xenpelar*

Gure herriko eta Oiartzun arteko mugatik oso hurbil dagoen Senperelarre baserrian jaio zen, 1835eko urtarrilaren 12an.

Mutil koskorra zela Egurrola baserrira joan zen morroi, han izeba bat bizi zuelako. Garai hartan, Egurrolakoak mandazain ibiltzen ziren.

1859an ezkondu zen Maria Josefa Retegirekin eta hiru alaba izan zituzten.

Madalena kalera ezkondu zen. Han bizi izan ziren, baita ama, arreba Maria Luisa eta beste anaia bat ere.

Seguruenik, *Xenpelarrek* jakingo zuen irakurtzen, baina ez idazten.

Ehun Fabrika Handian lan egin zuen ehule baztangaz hil zen arte.

1869ko urrian hasi eta hurrengo urteko urtarrila bitarte, 30 lagun hil ziren gaitz berarekin, tartean *Xenpelar* eta haren arreba Maria Luisa.

Baztangak jota zeuden erien etxeak itxi egiten zituzten, eta otartxo batekin igotzen zizkieten leihora behar zituzten gauzak.

Urrian bertan, 25ean, hil zen bere emaztea. *Xenpelarrek*, ordea, *Fabrika Handira* joaten jarraitu zuen; bere azken oihal-pieza azaroaren 20an kobratu zuen.

Anaia gaixotu zenean, Maria Luisa joan zitzaion zaintzera haurdun bazegoen ere. Behin baztangak kutxatuta zegoen etxe batera sartuz gero ez zegoen ateratzerik; beraz, bertan erditu zen, anaia hil zen egun berean, abenduaren 8an. Esaten dutenez, osaba gela batean zen gorpu eta aldamenekoan arreba haurra egiteko antsietan. Abenduaren 17an hil zen haurra eta hurrengo egunean ama.

Plaza-gizon bikaina eta bertso-jartzaile paregabea izan zen *Xenpelar*.

Gaur egun askoz gehiago dira ezagutzen ditugun bertso-paperak plazan kantatutakoak baino; hala ere, idatzitako bertso andana galdutzat ematen da. *Xenpelarrek* paperak utzi omen zituen erruz. Paper horiek Joxepa Antoni Aranberri iloba bertsolariaren etxean egon omen ziren urte askoan, baina hark Bozas-Urrutiari eman zizkion, eta honek ez zizkion gehiago bueltatu. Galdu egin ziren, beraz.

Urte haietan hasi zen zabaltzen Euskal Herrian, batez ere, *Xenpelarrek* hasitako tradizioa: Bertso-paperak.

Bere bertso-paperak oso ezagunak ziren eta saltzeko erabiltzen zen esaldia hauxe zen: “bertso berriak, *Xenpelarrek* jarriak”. Gipuzkoan entzungo ez zuenik ez zen izango. Bertso famatuen artean hauek ditugu: “Iparragirre abila dela”; “Aizak, hi, mutil mainontzi”; “Azken juiziokoak”, Euskal Herrian bertso-paper gehien atera zituzten bertsoak, beraz, “Pasaiko herritik dator notizia”, eta “Ia guriak egin du” izan ziren.

Mugaz bestalde, Iparraldean eta Bizkaian kantatzen dira *Xenpelarren* bertsoak eta horrelaxe sortu zen lehen Bertsolari Eskola.

Xenpelar bat-bateko herri-saioetan paregabea izan zen, sen handikoa, zorrotza eta burutsua, eta gure herriko bertsolarien artean XIX. mendeko ezagunena izan zen. Berak asmatutako bertsoak euskal geografia osoan zabaldu ziren, eta gure egunotan ere bizitasunik handiena gorde dute.

Gai asko erabili zituen bere bertsoetarako: fartsa eta umorea; kritika soziala; kronikak; testamendua; filosofia gaiak; gai erlijiosoak.

Desafio ugari eta ezagunak egin zituen:

Muxarro bertsolariarekin, esaterako ([Aizak i, mutil mañontzi](#)):

“Aizak i, mutil mañontzi,
Nagusiari goraintzi;
Ez al-akiken or pipa artzia
Ez zala lizentzi?...”

Jose Mari Iparragirrekin ([Iparragirre abilla dela](#)):

“Atoz gure kalera
baserritar legera
musika oyek utzita...”

Madalen kaleko bere etxean, *Xenpelar* etxean, plaka bat dago eta honela dio: “Petrirena tar Jon Pantzezka, “*Xempelar*”, bertsolari ospetsua, 1835 gko. Ilbeltzaren 13’an jaio zan eta etxe onetan 1869 ko. Abenduaren 8’an il zan. Orereta erri eta euzkeltzaleak arri oroigarri au ipiñi zuten. 1931 ko. Uzta-ren 24’ an.”

Koadernoko marrazkian, 4 zenbakia duen etxea da.

2. JUAN KOLDO MITXELENA ELISSALT

Goiko kalean jaio zen, 1915eko abuztuan. Artisau familiakoa zen. Gaztetxo zela, gaixotasun batek ohean egotera behartu zuen luzaroan. Orduan piztu zitzaion irakurzaletasuna eta euskararekiko isuri bizia.

Abertzaleak zituen etxekoak, eta berak ere gaztetatik eman zuen izena ELAn eta EAJn. Euskaltzaleak gazte mugimenduan parte hartu zuen.

Laneran hasi zen lanean eta aldi berean ikasketekin jarraitu zuen. Mitinetara joaten hasi zen. Garai hartan sentitu zuen, hain zuzen, gerra aurreko euskal literaturarako interesa.

1936ko altxamendu militarra gertatu zenean, abertzaleekin boluntario joan zen. Santoñan preso sartu zuten eta heriotza-zigorrrera kondenatu zuten, 1937ko irailaren 7an. Zigor hori, 30 urteko kartzela zigorragatik kommutatu zioten urte batzuetara.

Burgoseko kartzelan zegoela hainbat intelektual eta unibertsitario ezagutu zituen eta haietako batek konbentzitu zuen ikasketa unibertsitarioak egiteko.

Herrira itzuli zenean osasunez patal xamar zebilen. Herriko enpresaburu batek kontulari-postua eskaini zion Madrilen. Hara joan zen lanera eta klandestinitatean murgildu zen. Garai hartan, diktaduraren kontrako oposizioak pentsatzen zuen Bigarren Mundu Gerra aliatuek irabaziz gero, Francoren erregimena eroriko zela.

1946ko apirilaren 10ean atxilotu zuten CNT eta EAJ taldeekin harremanak zituelakoan. Bi urteko kartzela zigorra bete zuen.

1948an itzuli zen herrira, baina Madrileko Filosofia eta Letretako fakultatean matrikulatu zen.

50eko eta 60ko hamarkadak oso garrantzitsuak izan ziren Mitxelenarentzat, garapen intelektual handia izan baitzuen. Diru aldetik eskas zebilen, ordea, eta aldi bereko lan bat baino gehiago egin behar izan zituen bizibidea ateratzeko. Aurrekari penalak zirela eta, ez zitzaion erraza egin lan finkoa aurkitzea. Zenbait lagunek, ordea, bazuten haren ahaleginaren eta balioen berri. 1949an ezkondu zen Matilde Martinez de Ilarduyarekin.

1954an Julio de Urquijo Euskal Filologiako Mintegiko zuzendari izendatu zuten eta *Egan* aldizkariko erredakzioan parte hartzen hasi zen.

Aldi berean, Salamancako unibertsitatean eskolak ematen hasi zen. 1958an Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedra hartu zuen Salamancako unibertsitatean, euskarari Espainiako unibertsitate batean eskainitako lehenengoa, hain zuzen. 1959an doktoretza lortu zuen. 1968an Indoeuropar linguistikako irakasle izan zen.

Salamancan eskolak ematen hasi zen garai bertsuan Euskaltzaindiak ardura handiko enkargua eman zion: euskara idatzia batzea. Eztabaida handiak izan ziren garai hartan, batez ere H letraren erabileraren gaiarekin. Euskara batua eraikitzerakoan bere ikuspegia ez zen hizkuntzalari huts batena izan, soziolinguistika arloko ekarpenak ere gogoan izan baitzituen.

Argi ikusi zuen euskara batua erdialdeko euskalki erabilien gainean eraiki behar zela. Era berean, etorkizuna nondik joan zitekeen ikusi zuen eta orduko gazte euskaltzaleek zuten sentsibilitatearekin konektatzen jakin zuen.

1969. eta 1971. urteen artean Euskal Hizkuntzalaritza Konparatua irakatsi zuen Parisko Sorbonako unibertsitatean.

Bokazio handiko hizkuntzalaria izan zen eta hainbat hizkuntzaren ezagutza zuen.

Literatura irakurle amorratua zen eta zinea ere oso gogokoa zuen. Zine-kritikak idatzi zituen eta epaimahai, ekitaldi kultural eta abar ugaritara deitzen zuten. Bestalde, hezkuntza eta kultura arloko erabakiak hartu behar zirenean maiz joaten zitzaizkion aholku eske.

Euskal Herriko Unibertsitatearen sorreran parte hartu zuen, baita normalizazio kulturalen ere.

Azken urteetan Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan zen eta euskal filologoen lehen promozioak prestatzen jardun zuen. Urte luzez Euskal Hiztegia prestatzen aritu zen. Orotariko Euskal Hiztegia inprimatu aurretik hil zen.

Bere lanak hauek izan ziren: *Apellidos vascos*, 1955; *Historia de la literatura vasca*, 1960; *Fonética histórica vasca*, 1961; *Lenguas y protolenguas*, 1963; *Textos arcaicos vascos*, 1964; *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 1964; *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 1972; *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 1988; *Orotariko euskal hiztegia*, 1987-2005.

Egindako lana eskertzeko, bere izena jarri zioten Gipuzkoako liburutegi eta kulturguneari. Era berean, herrian ere bere izena eman zioten plaza bati.

1987ko urriaren 11n hil zen.

Goiko kalean dagoen bere jaiotetxean honela dion plaka dago:
“1915-1987. Hemen jaio eta bizi izan zen Koldo Mitxelena jauna, hizkuntzalari ospetsua izan zena, eta Errenteria hiriko seme kuttuna.
Errenteria 1988ko urriaren 11an.”

Koadernoko marrazkian, 2 zenbakia duen etxea da.

http://www.euskara.euskadi.net/r59-bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp
http://www.blogari.net/euskargazki/2010/12/07/koldo_mitxelena_hizkuntzalariaren_sortet
<http://www.youtube.com/watch?v=auOZ8sOokMk&feature=related>

3. KOLDOBIKA JAUREGI ETXENAGUSIA, *Jautarkol*

Herriko plazan, Beheko kaleko 2. zenbakian jaio zen, 1896ko ekainaren 21ean. Bertan dagoen oroigarriak hala dio: “Etxe honetan jaio zen Jauregi´tar Koldobika. *Jautarkol* olerkaria (1896-VI-21-1971-II-2) Errenteriako herriak jaiotzaren mendeurrenean esker onez (1996-VI-21)”.

Idazlea eta apaiza izan zen. Comillasen (Kantabria) ikasi zuen apaizetarako eta han, besteak beste, *Orixe* ezagutu zuen. Hark sortu zion idazteko zaletasuna. 1921ean, 25 urte zituela egin zen apaiz. Ondoren, Zuzenbide Kanonikoan lizentziatu eta Teologian doktore egin zen Comillaseko unibertsitatean.

Olerkaria, idazlea, artikulugilea, euskaltzale porrokatua eta euskaltzain izan zen. *Euzkadi*, *Euskal-Erria*, *Irugarrengo Prantzizkotarra*, *Rentería*, *Euskal Eснаlea* edo *Zeruko Argia* bezalakoetan idatzi zituen bere olerkiak eta artikulak. Era berean, ipuinak idatzi zituen. Ospea, ordea, *Biozkadak*, 1929, olerki liburuak eman zion.

Maiz aritu zen “Euskal Olerti jaietan”, eta haietan elkartzen ziren garaiko poeta ezagunak: Lizardi, Aitzol, Zaitegi, Loramendi eta abar, Euskal Pizkundea deitutakoan murgildurik.

Gerrak denbora luzean isilarazi zituen bere olerkiak, erbestean argitaratzen hasi ziren arte.

Saiakerak eta itzulpenak ere egin zituen, euskararen gorazarre eta haren geroaz kezkatu. Gure herriari buruz ere asko idatzi zuen. Euskara batuaren beharra antzeman zuen eta euskaltzain urgazle izan zen.

Sariak ere jaso zituen: 1935ean, adibidez, Olerti Eguneke saria irabazi zuen *Maite opari* olerkiarekin.

Errepublika garaia bizia izan zen *Jaurtarkolentzat*, asko idazteaz gain, kultur animatzaile gisa ibili baitzen.

Gerra garaian kartzelan eduki zuten, Tolosan, harik eta apaiz karlista baten bitartekotzari esker handik atera ahal izan zuen arte.

Elizako agintari frankistek urtetarako zokoratu zuten, ondoren. 1952an argitaratu zituen gerra ondorengo bere lehen olerkiak erbestean argitaratzen zen *Euzko Gogo* aldizkarian. Beldurrak eta zentsurak gerra aurretik poeta handia izan zena hutsaren hurrengo bihurtu zuten.

Aldeko giroak lagundurik idazten hasi zen berriz. Garai hartako lan esanguratsuen Camilo Jose Celaren *La familia de Pascual Duarte* lanaren itzulpena izan zen.

Hiru ipuin bilduma egin zituen: *Egiazko edertasuna*, 1923; *Ipuiak*, 1924; eta *Ipuiak berriz ere*, 1953. *Jaungoiko-Txikiri* buruzko ipuina ere idatzi zuen ere *Oarso* aldizkarian.

Saiakera eta biografiaren artean dauden bi lan egin zituen: *Xenpelar bertsolaria*, 1958an; eta *Loramendi olerkaria, aren garai barruan ikusia eta aztertua*, 1959an.

Bere azken urteak Zarautzen egin zituen, 1971ko otsailaren 2an hil zen arte. Egindako lana eskertu nahirik, Zarauzko udalak bere izena ipini zion kale bati. Gure herrian, berriz, plaza batek darama bere izena, Torrekuia dorretxearen aurrean dagoenak, zehazki.

Urtero, *Jaurtarkol Olerki Saria* ere antolatzen da ere haren omenez.

http://www.euskara.euskadi.net/r59-bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp
<http://www.armiarma.com/emailuak/itxaropena/jaut.htm>

<http://hedatuz.euskomedia.org/5557/>
<http://zubitegia.armiarma.com/?i=290>
<http://www.youtube.com/watch?v=auOZ8sOokMk&feature=related>

Koadernoko marrazkian, bere etxea 1 zenbakia duena da.

4. MARIASUN LANDA ETXEBESTE

1949ko ekainaren 5ean jaio zen.

Filosofiako ikasketak egin zituen Parisen. Ondoren, hainbat urtez irakasle izan zen Zarauzko eta Lasarteko ikastoletan. Egun, Literaturaren Didaktikako irakasle da Donostiako Irakasle-Eskolan.

Euskal Herriko hainbat aldizkari eta egunkaritan kolaborazioak egiteaz gain, bere emaririk nagusia Haur eta Gazte literaturan kokatzen da, dagoeneko 24 titulu argitaratu dituelarik.

Lan horietako batzuk katalanera, galizierara, gaztelaniara, ingelesera, frantsesera, grekora eta abarrera itzuli dira.

Sari ugari jaso ditu. Haien artean, Lizardi Saria, 1982an, *Txan Fantasma* ipuinarengatik; Haur eta Gazte literaturako Euskadi Saria, 1991n, *Alex* ipuinarengatik; A.M. Labaien Narrazio Saria, 2002an, *Krokodiloa ohe azpian* narrazioarengatik; eta, Haur eta Gazte Literaturako Espainiako Sari Nazionala, 2003an, *Un cocodrilo bajo la cama* liburuarengatik, besteak beste.

Jakiunde-Euskal Herriko Zientzia, Arte eta Letren Akademiako kide da.

2004an Donostiako Udalak emandako Hiritar Merezimenduzko Domina eta Erreterria Hiriko Domina lortu zituen.

Aldi berean, nobela autobiografikoa argitaratu du, *La fiesta en la habitación de al lado*, Erein, 2007.

Gaur egun, Erreterriako Berdintasunerako Kontseiluak Mariasun Landa Saria banatzen du urtero.

http://www.mariasunlanda.net/documents/hasi_eus.html
<http://zubitegia.armiarma.com/?i=218>

5. JUAN BAUTISTA OLAIZOLA LEKUONA

Musikaria, kantu irakaslea, koru zuzendaria eta organu jolea izan zen. Santa Klara kaleko 19an jaio zen, 1895eko irailaren 17an. Familia aberatsekoa zen.

Apaiz ikasketak egin zituen, eta hasieratik musikarekiko zuen zaletasuna agerian utzi zuen. 17 urte besterik ez zituela, Euzkadiko Orfeoia herrian aurkeztu zenean, jada koruen esparruan agertu zen. Apaizgai zela, bere gain hartu zuen koru baten zuzendaritza. Garai horretan, familiatik zetozkion osasun arazo larriak izan zituen.

1933an egin zen apaiz, eta urte horretan bertan, gaitasun azterketa bat gainditu ondoren, parrokoiko organo jole izendatu zuten.

1936ko gerran ihes egin behar izan zuen, eta erbestean Capbretonen bizitu zen harik eta 1940ean etxera itzuli zen arte. Urte batzuk itxaron behar izan zituen berriro parrokoiko zuzendaritza musikalaz arduratzeko.

Urtetan burutu zuen lan eskergari esker, tiple harrobi paregabea osatu zuelako nabarmendu zen. Tiple horiek, haur kantari horiek, gerora, tenore, baritono eta baxu bilakatu ziren.

Oarso izeneko zortzikotea prestatzeari ekin zion, eta zuzendari ere izan zen. Era berean, tipleei solfeo ikaskizun aberatsak eman zizkien, gerora kantari harrobi ugaria sortzeko balio izan zutenak.

1951n hil zen. Urte bete beranduago, Jubaola zortzikotea sortu zuten bere ikasleek. Izena, bere izen-abizenaren lehen letrekin osatu zuten.

1974an, Agustinetako bidean dagoen Olaizola-enea etxean –urte askotan bere bizilekua izan zen– marmolezko plaka bat jarri zuten. Horrela dio: “ Olaizola tar Juan Bautistari bere txori abeslariak. A su gran maestro los pequeños cantores. Primer Festival Provincial Interescolar de coros infantiles. 12 de mayo de 1974”.

Koadernoko marrazkian, bere etxea 3 zenbakia duena da.

6. JON MAYA SEIN

Koreografo eta dantza zuzendaria da. 1977ko azaroaren 5ean jaio zen.

Sei urte zituela, Ereintza Dantza Taldean ikasi zituen lehenengo dantza urratsak. Bertan jaso du dantza tradizionalen duen formazioa.

Dantza taldearekin hainbat folklore saio eta nazioarteko jaialditan parte hartu du. Gaur egun ere, talde horretako kide eta dantzari da.

Kazetaritza ikasketak egin zituen EHUn, eta hasiera batean kazetari eta dantza maisu lanak tartekatuz bazituen ere, laster dantzaren bidea jarraitzea erabaki zuen.

1999an Laxok taldea sortu zuen beste batzuekin, eta *Upeletan Erronka* ikuskizuneko dantzari gisa jardun zuen.

2001ean Kukai Dantza Konpainia sortu zuen, eta gaur egun bertan dihardu buru-belarri lanean konpainiako zuzendari, koreografo eta dantzari gisa.

Bakarlari gisa, Euskal Herriko Aurreskulari Txapelduna izan da zazpi aldiz: 1997an, 1998an, 1999an, 2000an, 2002an, 2004an eta 2005ean.

Musikari eta artista ugarirekin aritu da elkarlanean, besteak beste: AIKO taldea, Juan Mari Beltran, Jose Inazio Ansorena, Joserra Senperena, Iñaki Salvador, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Carlos Nuñez, Andoni Egaña, eta Jon Maia.

1997az geroztik, Erreterria Musikal Musika eta Dantza Eskolako irakasle da, eta, dantza tradizionala irakasten du, hain zuzen.

<http://www.kukai.info/eu/jon-maya-sein.html>

7. XABIER OLASKOAGA LASA

1918ko irailaren 6an jaio zen. Hiru urte zituela aita hil egin zitzaion eta bost senide zirenez, beren haurtzaroa ez zen erraza izan.

Ama saiatu zen heziketa ona eskaintzen seme-alabei. Hala, Xabierrek irakurtzen eta idazten ikasi zuen Gurutzearen Alaben eskolan. Ondoren, koskortzerakoan, neskek soilik jarraitzen zuten zuten mojen eskolan, Biteri eskolara joan zen. Gero, Zamalbideko Tolare-berri eskolan jarraitu zituen ikasketak.

Eskolaz gainera, heziketa ona emateko ahalegin horretan, herriko Musika Bandaren zuzendaria zen Jose Maria Iraola, ospe handiko musikaria, eta Felix Lavilla irakasle aparta lagungarri izan zitzaizkion musika ikasketen lehen urte haietan.

1932tik 1939ra, herriko Euzko Gaztedi Kirolzalea taldeko kide izan zen eta baita Batzokiko antzerki taldeko partaide ere. Zenbaitetan, bertako txistulari taldearekin atabala jotzen zuen.

Gerran ibili zen. Langile batailoietan aritu zen Miranda de Ebron, Leonen, Ourensen, Astorgan, Valladoliden eta abarren errepideak zabaltzen, kuartelak egiten, eskolak eta etxe merke deiturikoak eraikitzen, ura ekartzen eta abar.

Gerra amaitu zenean, hainbat hilabete preso egin ondoren, aske utzi zuten azkenik.

Ondoren, Xey taldea sortu zuen. Haiekin hiru disko grabatu zituen Madrilen.

Haurra zelarik hasi zen kantuan. Lehenik Batzokian Gazteak deituriko taldean, langile batailoietan Miranda de Ebron eta Ourensen, Donostiako Easo abesbatzan, Xey taldean, Algecirasen, Erreterriako Orfeon Renteriano abesbatzan, Santa Zezilian, Lartaun taldean, herriko Pakezaleak taldeko kide izan zen eta abar.

Euskararen alde lan handia egindakoa da. Bertsolarien Txapelketan, kantaldietan, kontzertu emanaldietan, dantzaldietan, era guztietako ospakizunetan aurkezle lanak egin zituen euskaraz.

Idazle eta sortzaile ere izan zen, Oarso aldizkarian idazten zuen urtero. Oso ezaguna izan zen.

1989ko Santa Ageda bezperan bertso hauek kantatu zizkioten:

Gabon Jainkoak Xabier eta
berdin ere etxeakoak
Santa Ageda bezpera ontan
giñaden etortzekoak.
Eskertutzeko denen aurrean
Herrian egindakoak
Hala ta guztiz izango gera
zorretan gelditzekoak

Amets hau dugu lagun Xabier
Gure bihotzan barrenez
Herriko seme leial bizkorra
Indartsu euskal almenez.
Hemendik lasai joango gera
agur ona eramanez
gure maitasun beroarekin
Bihar zerorren omenez.

2006ko uztailaren 25ean hil zen.

Herriko plaza batek, Niessenen dagoenak hain zuzen, bere izena darama herriagatik egin zuenaren esker onez.

8. ARANTZA IDIAZABAL GORROTXATEGI

Orereta ikastolako lehen andereñoa izan zen. 1945ean jaio zen, halabeharrez, Gaintzan (Gipuzkoa). Izan ere, ama irakasle zuen eta hango eskolara joan behar izan zuen familia osoarekin lanera.

Irakasle ikasketak egin zituen. Haiek amaitu baino lehen, Orereta ikastolan hasteko hitza eman zuen. Garai hartan, herrian kezka handia zegoen haurren hezkuntzaren gainean. Eskola adinean ziren hainbat haurren guraso eredu berri baten bila zebiltzan. Donostian eta Pasaian martxan ipini zituzten ikastolen entzutea ere bazuten: euskarazko hezkuntza eskaintzen zuten eta eredu pedagogiko berritzaileak. Halako zerbait ere eskaini nahi zieten herriko haurrei. Horiek izan ziren ikastolaren, eta euskarazko hezkuntzaren sortzaileak.

Talde hartako partaide bat zuen aita, Bittor Idiazabal, herrian euskararen eta kulturaren alde lan handia egin zuena. Egindako guztiaren oroimenez kale batek bere izena darama.

Ikasketak bukatu ondoren, Karmele Esnalekin egin zituen praktikak. Berarekin, eskolak emateko eta haurrak ikusteko beste modu, erabat berritzailea, ezagutu zituen.

Dozena pasatxo hurrekin hasi zen lanean 1963an “Pio Etxeberriarenean”, Santa Klara kalean, gaur egun Eguzki jatetxea dagoen etxean. Hori izan zen Orereta ikastolaren sorrera. Kontuan izan behar da, garai hartan, herriko gainerako ikastetxe guztiek gaztelaniaz soilik ematen zituztela eskolak eta hezkuntza oso zuzendua eta tradizionala zela. Kalean, gainera, euskararen

presentzia hutsaren hurrengoa zen.

Pionetik Añabitarreko eraikuntzara iritsi arte, Madalen kaleko pisu batean, Galtzarabordan, Aita Kaputxindarren komentuan, Iztietako elizan eta Juan Olazabelen egon zen ikastola.

Hurrengo urteetan, ikastola hazten zihoan heinean, herriko gainerako ikastetxeak euskara sartzen hasi ziren, pixkanaka. Lehenik, A eredukoak ziren eskola guztietan zenbait talde B eredura pasa zituzten. Ondoren, D eredua zabaltzen hasi zen, gaur egun gure eskolek egiten duten eskaintza lortu arte.

Gaur egun, erretiratuta dago, ikastolan 42 urtez lanean aritu ondoren.

<http://www.xn--eskerrikaskoandereo-d4b.com/pg/groups/412/arantza-idiiazabal/>

9. SORKUNDE RUBIO ANSOTEGI, *Sorkun*

Amaren aldeko familia Lekeitiokoa da, baina Beraun auzoan bizi zirela, euskara galdu zuen.

17 urte zituela, euskara ikasi zuen herriko AEK-ko euskaltegian lehenengo eta Ondarroako barnetegian geroago. Euskal kantari eta musikari da. 1990eko hamarkadan, 17 urte zituela, *Kashbad* herriko musika taldeko kantaria izateagatik izan zen famatua. Ondoren, *Negu Gorriak*, *Joxe Ripiau* eta *Flitter* taldeekin aritu zen.

Fermin Muguruzarekin abestu du haren kontzertuetan eta diskoetan, gainera, lau pabost bira egin zituen harekin munduan zehar.

Bere bakarkako lanak hauexek dira: *Onna*, 2002; *Duna*, 2005; eta *Sorkun & Vice Presidentes*, 2008.

<http://www.myspace.com/sorkun>

Abestien letrak: <http://eu.musikazblai.com/sorkun/>

10. JUAN LUIS LANDA HERNANDEZ

1965eko abuztuaren 7an jaio zen. Kimika metalurgikoa ikasi ondoren, 1984an, profesional gisa hasi zen lanean ilustrazioaren esparruan.

Urte hauetan guztietan egin dituen lanen artean daude: *Kalabaza tripontzia* filman parte hartu zuen (1984), *Gure Herriaren historia-Gabai* (Lur, 1986), *Ignacio de Loyola* (Lur), *Vascos ilustres-Gabai* (Lur), *Euskal Herriko legendak* (Erein, 2002), *Sorginak* (Erein, 2006) eta *Nur* bilduma, besteak beste.

1992an eta 1993an *Egin* egunkariko *Euskal Flash* umore orrialdeak marraztu zituen.

El ciclo de Irati (Glenat) eta *El Fuerte* (Norma) albumak frantsesera, alemanera eta italierara itzuli dira, eta haiek izan dira Europan egiten duen lanaren abiapuntua.

Bere lana hainbat aldiz izan da saritua. Besteen artean, Nafarroako Ikastolen Gazte eta Haur literatura saria jaso zuen 2009, 2010 eta 2011an.

Azkenaldi honetan, azpimarragarriak dira ilustrazio historiko eta etnografikoaren gaineko haren lanak.

Aipatu, HERRIA EZAGUTZEN egitasmoko ilustratzailea eta lankidea izan dela, harenak direlarik koadernoetako ilustrazio gehienak.

<http://www.estudiolanda.com/>

11. MIKEL MARKEZ IBARGUREN

1971ko urriaren 4an jaio zen. Hamabost urte zituela hasi zen gitarra jotzen eta lehen kantuak egiten. Hasieran, jendaurreko kantu saioak eskaintzen zituen eta 1989an grabatu zuen bere lehen diskoa.

Rock eta folk taldeak modan zeudenean aspaldiko kantautoreen moduan ibiltzen zen. Sortu zituen kantu sentibera eta erromantikoen bidez berehala konektatu zuen jende gaztearekin.

Gainera, zuzenean nahiz diskoan, euskal musikari gehienekin aritu da. Aldi berean, hainbat bakarlari eta talderentzat ere idatzi ditu letrak.

Ahots gozokoa, ahots horri zegokion musika tresnak eta moldaketak lotzen

asmatzen jakin du.

Urteen poderioz bere gaiak eta kezkak zabalduz joan dira, maitasunaren inguruan ari zen kantagintza ireki eta gai sozial, politiko eta bizi garen jendartearekiko kritikak landu ditu.

Orain arte, zortzi disko kaleratu ditu: “... eta etorri egin zait...” 1991; “Oroitzapenak oparitzen ditut”, 1993; “Zertarako mugak jarri?”, 1995; “Kantu erotikoak”, 1997; “Dena hankaz gora”, 1999; “Tribuaren hitz galduak”, 1999; “Erabil nazazu”, 2004; “Zure begiek”, bilduma (1988-2008), 2008.

<http://www.mikelmärkez.com/>

Abestien letrak: <http://eu.musikazblai.com/mikel-markez/>

12. TXUMA MURUGARREN

1964an jaio zen. Aspaldiko urteetan Bizkaian bizi da. Euskarazko abeslari, zutabegile eta blogari da.

90eko hamarkadan, *Sasoi Ilunak* taldeko abeslari, gitarrista eta kantuen hitzen egile izan zen.

Talde horrekin hiru disko grabatu zituen. Ondoren, 2000 urtean, bakarkako bideari ekin zion. Ordutik, sei disko kaleratu ditu.

Bere ibilbide musikala etengabeko sorkuntza dela esan daiteke. Disko batetik bestera moduak, tonalitateak, soinuak aldatuz eta esperimentatuz lan-bilduma oso pertsonala sortu du. Disko sakon eta anitzak egin ditu goi-mailako musikarien laguntzaz. Kantu leunak, rock gordina, pop eta intimismoa aurki ditzakegu bere kantutegian. Zuzeneko emanaldietan formatu akustikoan eta elektrikoan aritzen da.

Galeraz, denboraren iraganaz, heriotzaz, arrotasunaz, galdutako xalotasunaz eta beste idatzi ohi du. Gehienetan, gainera, goibel, malenkoniatsu eta gazi-gozaok suertatzen diren doinuekin janzten ditu hitzak, ahots lakarrez abestuak.

Larrialdietako irteera, Paper Hotsak, 2006, liburua argitaratu zuen, ostegunero *Berria* egunkarian argitaratutako artikulu bilduma, hain zuzen.

Sasoi ilunak taldearekin *Sasoi ilunak*, 1991an; *Herri Xumeak*, 1993an; eta,

Harakina, 1998an grabatu zituen. Bakarka, berriz, *Nire leihoak*, 2000an; *Hegazkinen arima*, 2001ean; *Gauak, neskak eta mailetak*, 2003an; *Nire anaiaren kotxeko argiak*, 2004an; *Marjinalia*, 2007an; eta *B aldeko katuak*, 2010ean.

Abestien letrak: <http://eu.musikazblai.com/txuma-murugarren/>

13.XANTI IPARRAGIRRE PERURENA

Bertsolari eta idazle ezagun hau 1934an jaio zen, Añarbe baserrian. Ama Goizuetakoa zuen eta aita, berriz, Oiartzungoa. Hamar anai-arrebatatik zazpigarrena zen bera. Eskolara joateko aukerarik ez zuen izan. 16 urtera arte etxean lan egin eta gero basolanari ekin zion, ikatza egiteko egurra bota eta prestatzen.

Soldaduska aurretik Donostian Gaiztarroren mendia zena lautu zuten eskuz, etxeak eraikitzeke, gero Bidebieta parkea izendatu zuten tokian.

Eskoriatzara ezkondu zen, eta bertan Goikolea eta Akixorekin batera, Euskal Herrian aitzindari izango zen haurrentzako Bertso Eskola jarri zuten martxan.

1981ean alde egin behar izan zuen etxetik. Lapurdin bizi da, erbestean. Bertso irakasle gisa ibili zen Ipar Euskal Herriko eskoletan duela 25 bat urte. *Biziaren Azala* liburua argitaratu zuen 1998an. liburua argitaratu zuen 1998an.

<http://www.ahotsak.com/erreterria/hizlariak/xanti-iparragirre-perurena/>
<http://www.argia.com/argia-astekaria/1968/xanti-iparragirre-sufirimendua-luzea-bada-konponbideak-ere-luzea-izan-behar-du>

14.ANTONIO VALVERDE

1915eko urtarrilaren 17an jaio zen. Bere familiak belaunaldiz belaunaldi inprimategia izan zuen.

Zuzenbidea ikasten hasi zen, Zaragozan. Gerra Zibilak, ordea, eten eta geroago bukatu behar izan zuen.

Zaragozara, ordea, azterketa egunak baino pixka bat lehenago egun batzuk lehenago soilik joaten zen. Hala, Ascensio Martiarena pintorearengana joaten zen ikastera.

Familiarengandik zetorkion inprimategiaren zuzendaritza lanak izan zituen ogibide. Bere benetako bokazioa, hala ere, pintura izan zen. Horrekin batera, idatzi ere egiten zuen. 1945etik 1963ra, haren aitonak sortu zuen *El Bidasoa* aldizkarian maiz argitaratzen zituen artikuluak eta irudiak. Gainera, *La Voz de España*, *El Diario Vasco*, *Zeruko Argia*, *Egan* eta *Oarso* argitalpenetan ere idatzi zuen. Ondorioz, 50eko eta 60ko hamarkadetan euskal arte eta kultura munduko gertakizun guztietan egoten zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen zuen Artista Berrien lehiaketan hirugarren gertatu zen 1935ean, eta, lehena 1942an.

1941ean ezkondu zen Maria Doloren Lamsfur Retegirekin eta sei seme-alaba izan zituzten. Horietako bi, Rosa eta Javier, pintore ezagunak dira gaur egun.

1945ean “La Labor” eta “Canción de Sidrería” koadroekin parte hartu zuen Arte Ederretako Erakusketa Nazionalan.

1950etik aurrera, berriz, Donostiako Gabonetako Lehiaketan parte hartu zuen eta 1952an Dario Regoyos saria lortu zuen.

Bi liburu argitaratu zituen: *Con fondo de txistu* eta *Ibar Ixillean* R.S.V.A.P.-ko kide izan zen, hala nola Euskaltzaindikoa eta “Asociación Artística de Gipuzkoa”-ko lehendakari izan zen.

Donostian bizi zen arren, Oiartzungo “Ayalde” bere etxe eta estudioan pasatzen zituen bolada luzeak. Han bertan hil zen, 1970eko uztailan.

<http://www.antoniovalverde.com/>

15. EVARISTO BOZAS URRUTIA

1886ko uztailaren 5ean jaio zen. Haren familia apala eta oso handia zenez, ikasketak utzi behar izan zituen etxeakoak laguntzeko.

Ideologiaz ezkertiarra zen erabat, beti jendarte borrokan murgildua eta herriarekin lotuenak zeuden jarreraren alde jokatzeko; bai pertsonalki eta baita egunkarietako erredakzioetatik.

Garaiko egunkari batek jaso zuenez: “figuró, orador fácil y entusiasta, en muchos mitines. Y muchas veces, también fue procesado y encarcelado por su participación en actos proletarios”.

Tipografian eta kazetaritzan hasi zen lanean 1900 urte inguruan.

1903an Argentinara joan zen. Han, hainbat herritan kazetari izan zen: Tres Arroyos-en, Pergamino-n eta El Azul-en, besteen artean.

Ondoren, Montevideora joan zen. Hiri horretako *El Diario Español* egunkariko erredaktore buru izan zen, eta euskal argitalpenetan lagundu zuen.

Politika mailan etorkizun oparoa zabaltzen ari zitzaionean, Argentinako Tres Arroyosetik deitu zioten herri horretako egunkari baten zuzendari izateko.

Geroago, *Diario del Pueblo* sortu zuen.

1921ean itzuli zen Euskal Herrira. Urte horretatik aurrera idatzi zituen urte batzuk geroago *Nire herriaren ibillaldiak eta gora-beherak/ Andanzas y mudanzas de mi pueblo* liburua osatuko zuten artikuluak.

Aldi berean, *La voz de Guipuzcoa* egunkarian aritu zen. Jarraian, Jose Maria Lizarragarekin *La Voz de Leiza* hilabetekaria sortu zuen. Sei zenbaki baizik ezin izan zituzten argitaratu, herrietako kazikoei amerikar mentalitatez aurre egiteko modu bat izan zen hura.

1923an, Lizarraga berarekin eta R. Berraondorekin Donostiako *El País Vasco* sortu eta zuzendu zuen.

Zuzendari lan horretan aritu zen, harik eta 1928an Argentinako Tres Arroyosetik *La Región* egunkaria zuzentzera joan zen arte.

Handik gutxira, *Diario del Pueblori* heldu zion berriro ere. Orrialde haietatik gogor aritu zen administrazioaren moralitasun ezaren eta debekatutako jokoen kontra.

Jarduera horren ondorioz, hainbat sektore politikoren gorrotoa pairatu behar izan zuen.

Haietako batzuk hil zuten hiru tiroz 1929ko apirilaren 18an.

Bere sorterriko gauzekiko maitasun sakona erakutsi zuen. Hil aurreko urteetan, sutsuki miresten zuen Zumalakarregi jeneralaren gaineko liburu baten prestaketa lanetan ari zen.

Aipatu lanez gain, 1909an *El Alcoholismo* izeneko liburuxka argitaratu zuen

eta 1928an, Argentinatik itzuli berritan, *La tragedia del Emigrante*. Azken horretan, hainbat etorkin espainolen testigantza latzak jaso zituen, Plataren ibaiertzera iristen zirenean gobernuen ordezkariak haiekiko zuten utzikeria salatzeke.

16. ERRAMUN ASTIBIA ETXEGOIEN

1881eko azaroaren 17an jaio zen Fanderian. 1894an Lekarozko (Nafarroa) eskolara ikastera joan zen. 1900ean aita kaputxinoen ordenean sartu zen.

Hainbat urtetan El Pardon eta Lizarran bizitu zen.

Tuteran hil zen, 1916ko ekainaren 10ean.

Haren obra poetikoa 1935ean argitaratu zuten *Olerkiak 1881-1916* izenburupean. Bestalde, *Oroitu zaitez* olerkia idatzia zuen.

Zenbait goitizen erabiltzen zituen bere lanak sinatzeko: *Gabiola*, *Sarbide*, *Arrobi'tar Danel*, *Argitzale* eta abar.

Erreterriako Udalak haren lanak jasotzen dituen CDa argitaratu zuen 2003an.

Egindako lanari esker onez, herriko kale batek haren izena darama.

17. JOXEMARI CARRERE ZABALA

Pasai Donibanen jaio zen, 1963an. Handik bi urtera herrira etorri eta han bizi da ordutik.

Hamasei urterekin hasi zen antzerki talde batean aktore gisa. Geroago hasi zituen Arte Dramatiko ikasketak, Antzerti eskolan. Ordutik, Euskal Herriko hainbat antzerki talde profesionaletan aritu da aktore lanetan.

Antzerki ikastaroak eman eta ikasketa musikalak egiten ari da Erreterria Musikal Musika eta Dantza Eskolan.

1993an murgildu zen ipuin munduan. *Behin munduan...* helduentzako ikuskizuna aurkeztu zuen, Mikel Markez kantariarekin eta Alaitz Telletxea trikitilariarekin batera.

Ondoren, lan hauek etorri ziren: *Mingain Haragia* (1995), *Kondoi bakoitzak*

bere istorioa dauka (1997), Igurtzi nazazu, berriro, laztana (1998), Vivir del cuento, una buena opción (2000), Todo lo que tiene nombre existe (2002), Munduko ipuin txarrenak (2008), El viajante de cuentos (2009), Cuentos nómadas (2009), El Arbol del Amor. Cuentos pre-eróticos (2010) eta ¡Qué buena está mi mujer! (2011).

Hainbatetan Euskal Telebistan lan egin du eta bere ipuinak kontatu ditu Paraguan, Portugalen, Venezuelan eta Kuban.

Egun, ipuinak kontatzeaz gain, kolaborazio literarioak eta antzerki kritikak egiten ditu Euskal Herriko hainbat argitalpenetan. Gainera, ahozketasunean interesaturik dago, kontakizun tradizionalak egungo ahozketasunera egokitzean, hain zuzen.

<http://carrerekontalaria.blogspot.com/>

JARDUERA1: Azken irteera egiteko herriko hainbat pertsonaia proposatu dizkizugu. Haietako zenbaiten jaiotetxeak ere aipatu dizkizugu.

Nahi izanez gero, jaiotetxeen kokapena erreferentziatzat hartu eta herrian barreneko ibilbidea proposatu nahi dizuegu. Beste zenbait pertsonaiaren jaiotetxeak ez ditugu aipatu. Horiei buruzko xehetasunak emateko herriko gustuko leku bat edo leku esanguratsu bat aukera dezakete ikasleek.

Gidan pertsonaia horien gainerako biografia duzue. Unitate honetan proposatu nahi dizueguna da ikasleak taldeka banatzea eta talde bakoitzak gustukoa duen pertsonaia aukeratzea. Ondoren, pertsonaia horren gainerako biografia prestatu beharko dute ikaskideei azaltzeko, eta, azkenik, pertsonaia horren lan edo sorkuntzaren bat eskaini beharko diete gelako gainerako kideei.

JARDUERA2: Taldeka edo banaka, gustuko duten edo interesgarria iruditzen zaizen beste pertsonaia bat aukera dezakete. Haren gainerako biografia eta datu bilketa prestatzeko eskatuko diegu. Ondoren, taldeko gainerako lagunei aurkeztuko diete. Nahi izanez gero, aurkezpen hori egokiena iruditzen zaizen euskarrian aurkezteko esango diegu: Power point baten bidez, ikus-entzunezko labur baten bidez eta abar, pertsonaiari elkarriketa bat egin eta bideoz grabatu eta abar.

Aurkezpen hori, gelakideei aurkezteaz gain, pertsonaiari bidaltzeko helburuarekin egin dezakete.

JARDUERA3: Pertsonaia bera gelara ekartzea proposa geniezaieke. Horretarako, egin beharreko kontaktu lanak eta abar, ikasleei beraiei egitea

proposatuko genieke: pertsonaiarekin harremanetan jartzeko modu egokiena aukeratu; harreman bide hori prestatu, izan, idatziz, telefonoz edota abar, pertsonaiari proposatu beharrekoaren gidoia egin, eskaria definitu eta abar.

Azkenik, pertsonaiarekin egin nahi den zita zehaztu eta egun horretakoak

prestatu beharko dituzte: pertsonaiari harrera, egin nahi dizkieten galderak, grabatu nahi badute beharko dituzten bitartekoak eta abar.

Koadernoko 12. eta 13. Orrialdeak.

18.KONTAKIZUNA: DAMASA, MAITATUA IZAN EZ ZEN MONUMENTUA

Herrian monumenturik ez zela eta, Ricardo Urgoiti sendagile eta zinegotziak bultzaturik, Udalak monumentu bat eraikitzea erabaki zuen 1924ko urriaren 25ean. Monumentu hura, herriko seme kutunei eskainia zegoen, “semeei” soilik, ordea.

Estatuaren lehen diseinua egin zuten, eta baita lehen harria ipini ere, 1925eko uztailaren 24an.

Herriak isekaz hartu zuen monumentuaren lehen harri-jartze hura, San Ferminetako kalejira musika zuen abesti haxe asmatu zuten:

Han ponído la primera piedra,
Han ponído, han ponído.
Han ponído la primera piedra,
La segunda cuando ponerán.

Ekitaldi haren segidan, eragozpenak, zangotrabak eta geldialdiak etorri ziren. Jendeari ez omen zitzaion gustatzen estatuaren biluztasuna. Eta hura omen zen estatuaren kontra zuten arrazoi nagusia; izan ere, eskultoreari diru kopuru handi bat eskaini omen zioten estatuaren bularraren erliebea txikitzeko.

Garai hartako herritarrek ditxosozko estatuaren aldekoen eta kontrakoaren artean zatiturik omen zeuden.

Proiektua oso garestia zenez, beste eskultore bati agindu zioten eskultura egitea, lehena baino apalagoa.

Azkenean, monumentua Zumardi Handiaren izkina batean ipini omen zuten. 1929an inauguratu zuten herriko sinbolotzat zutik ageri zen jite zorrotzeko emakumearen irudia. Estatuak alboetan, herriko izen ona zabaltzen lagundu zuten gizon guztien izenak eta haien bizitza jasotzen zuten plaka grabatu batzuk zituen.

Han zeuden, besteak beste, Zubiaurretarrak, Gamondarrak, Isastitarrak, Amasatarrak eta abar. Seme aipagarrien zerrendan Amasatar batzuk agertzen zirelako, hain zuzen, lana kokatu eta gutxira “la de Amasa” edo besterik gabe “la Damasa” deitzen hasi ziren.

Estatua ez zen herritarren gustukoa izan. Ipin zuten une beretik, jendearen kritikak eta ulertu ezinak jaso zituen. Zenbaitentzat modernoegia zen; eta, besteentzat, berriz, moralik gabea.

Inaugurazio egunean, Francisco Aiestaran herriko apaizak ez zuen hura bedeinkatu nahi izan lizunegia iruditzen zitzaiolako, estalkiaren azpian emakume formak igar baitzitezkeen.

Irudia, hala ere, trapu batez estalia eduki zuten urtebete baino gehiagoz. Madrilgo “El Sol” egunkariak estatuaren karikatura bat argitaratu zuen, herritarrak ez oso leku onean utziz.

1931n, erregimen politikoa aldatu zenean, estatuari estalkia kendu zioten. Ez ziren haren zoritxarrak han bukatu, ordea. Gogoz eraso zioten, gorputzeko atal jakin batzuk margotuz eta lokatzez zikinduz. Harrikatu, zikindu eta trapuz eta bestelako oihalez estali zuten haren forma ederrak ezkutatzeko. Izengoitia ere jarri omen zioten.

Urte batzuk geroago, herrian izan ziren uholde ugari haietako batek herrestan eraman zuen. Inork ez zuen ezertxo ere egin Oiartzun ibai hondotik ateratzeko. Urte luzez egon zen han, harik eta ibaia dragatu zuten arte.

Baina orduan ere, baztertu egin zuten. Egoera tamalgarri hartan utzi zuten, zikin-zikina, zabortegi gisa erabiltzen zen orube batean.

Lekuaren garbiketa egiten hasi zirenean, gure herriko “Dama” hondakin kamioi batean galdu zen betiko.

19. GURE ALTXORRA: ONDAREA, KULTURA, HIZKUNTZA

Herriko historiari eta kultura arloan zeresana izan duten pertsonaien bizitzari astindua eman diegu aurreko jardueretan.

Urteen joanean, gauza asko aldatuz joan dira herrian eta herritarrengan garaian garaiari egokitu behar horretan.

Hala, gure ondare kulturala, hitzaren zentzurik zabalenean, osatuz joan da. Ondarearen atal desberdinak egituratuz eta aberastuz joan dira herria, herritarrak eta haiekin batera, noski, gure kultura eraldatu eta osatu den heinean.

Ondare horren hainbat adierazpide ahaztu eta galdu dira. Beste batzuk ahazteko zorian daude. Oso antzinatek, belaunaldiz belaunaldi, ekarri ditugu gureganaino. Eta orain, guri dagokigu gure herriko ondarea osatzen duten adierazpide horiek guztiak babestu, hedatu eta gure ondorengoei eskaintzea.

Ondare horren adierazpide horietako bat, garrantzitsuena eta denen lokarri gisa egiten duena, dudarik gabe, gure hizkuntza da: euskara.

Herriko lehen biztanle haiek Aizpitarteko leize-zuloetan kokatu zirenetik gaur egun arte, euskara izan dugu herri honetako biztanleek gure artean komunikatu eta gure sorkuntza gehienak adierazteko hizkuntza.

Gainerako adierazpideen gisan, euskarak garai desberdinak ezagutu ditu. Herritarren hizkuntza bakarra izatetik, XIX. mende amaieran etortzen hasi ziren etorkinek ekarri zuten gaztelaniarekin elkarbizitzen eta egokitzen ikasi behar izan zuen.

1936ko gerraren ondoren etorri zen Frankoren diktadura garaian galarazi egin zen euskara: eskolan, kalean eta baita etxean ere.

Zigorren beldurren eraginez eta beste hainbat faktoreren eraginez, euskara urte gutxitan zokoratua geratu zen bere herrian, ia ahaztua eta galdua.

XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera hainbat herritar euskara ahanzturatik ateratzeko ahaleginean hasi zen. Lehen ikastola sortu zuten, pixkanaka eta zailtasun handiekin euskara eskola guztietako geletara hedatu arte. Gau-eskolak sortu zituzten helduentzat, eta, euskarak kalean presentzia izan zezan era guztietako ekitaldiak antolatzen hasi zen.

Hizkuntza nagusia bihurtu zen gaztelania. Gaur egun, ordea, eta urteen joanak

ekarri dituen beste herrialdetako jendeek ekarri dituzten hizkuntzak direla eta, ohikoa da kalean munduko beste hainbat hizkuntza entzutea ere.

Alde horietaz guztietaz aritu nahiko genuke datozen jardueretan.

20. EUSKARAREN JOAN-ETORRIAK

Hainbat liburu eta dokumentutan jasoak geratu ziren urteetan eta mendeetan zehar euskarak izan zituen status edo egoerak. Zenbaitetan, garaiko jendearen edo gertakizunen lekukotasunari esker dugu horren berri; bestetan, aldiz, udal agintariak edo goragoko instituzioetako agintariak emandako agindu edo debekuen ondorioz.

Koadernoko orri horretan, albiste moduan eskaini nahi izan dizkizugu haietako batzuk. Albiste horiek irakurriz, euskarak gure herrian izan duen historiaren nolabaiteko kronologia izango duzu.

Ikusiko duzunez, albiste batek, orain urte batzuetako data daramana, idatzi gabe dago. Gure proposamena, ikasleek beraiek idaztea da. Irakurritakoaren ondoren, eta hurrengo orrialdeetan eskainiko diren datu eta abar aztertu eta hausnartu ondoren, euskarak aurrerantzean izango duen bilakaera irudikatzeko eta albiste moduan idatz dezaten eskatuko diegu.

Nahi izanez gero, gure ikasleak helduak izango diren data bat jar dezakegu, ikasleak beraiek inplikatur euskararen egoera horretan. Egokiago ikusten baduzu, beste aukera bat, askoz aurrerago izango den data bat jartzea litzateke. Hala, gure ikasleek ez ezik, haien ondorengoek ere izango dute zerikusia hizkuntzaren egoeran. Transmisioaren gaia lan dezakegu horrela, eta horretan guztiok dugun esku-hartzea.

1569ko urtarrilaren 5a: PREDIKATZAILE EUSKALDUNAREN BILA

Gillen Tolosa herriko bikarioak agintariei eskatu die predikatzailer euskalduna bilatzeko garizumako sermoia euskaraz esan dezan, urtero legez. Izan ere, urtero Donostiako San Telmo monasterioko apaiza etortzen den arren, oraingoa gaztelaniaz soilik mintzatzen denez ezin du euskarazko sermoia eskaini herriko anima kristauen alde. Kontuan izan behar da herritar arruntek ez dakitela gaztelaniaz.

Agintariak onartu dute bikarioaren eskaria, eta apaiz euskalduna bilatuko eta dagokion limosna eta baimenak emango dizkietela gaineratu dute.

1627: GASKOIAK ETA EUSKALDUNAK

Egun hauetan egiten ari den auzian hainbat herritarrek deklaratu dute. Lehen lekukoa, Pedro Lizarraga 36 urteko sanpedrotarra izan da. Pasaiaiko alde hori Donostiako eskumenekoa izanik, bertako populatzaileak Frantziako gaskoiak izan zirela adierazi du. Ondorioz, gaskoi hizkuntzak gaur arte iraun duela adierazi du. Beraz, herri horretan edo Donostian gaskoiz hitz egiten ez duenak eta ezagutzen ez duenak, ez dela bertakoa adierazi du, jatorrizko hizkuntza eta sortzezkoa gaskoia delako, Errenterian eta probintziako gainerako herrietan euskara den gisara.

1654ko azaroaren 11: **KAPUTXINDARREN KOMENTUAN FRAIDE EUSKALDUNIK EZ**

Udalak bere protesta azaldu du Kaputxindarren komentua Aragoikoaren mende utzi dutelako eta hango fraideak ekarri dituztelako. Era berean, gogorarazi du aipatu komentua zabaltzeko baldintza bertan euskaraz konfesatzeko eta predikatzeko izan zela, hori baita herrikoen eta inguruko hizkuntza, eta komentua herrian errotzearen arrazoia.

Udalak, bestalde, kaputxindarrei eskatu die komentuaren sorreran izan zituzten helburuei eusteko, eta, horretan, Gaztelako eta Aragoiko fraideek ezingo dutela alemaniarrek baino ekarri handiagoa egin.

1863: **BONAPARTEK SAILKATUA**

L.L. Bonapartek gure herriko euskara sailkatu du. Haren arabera, euskara gipuzkoarra da, ekialdeko dialektoa eta Hernaniko aldaera duena.

1902: **EUSKARA GAIN BEHERAN**

Joan den mendearen lehen herenean Añibarrok gure herria peto-peto euskaldunak ziren artean zerrendatu bazuen ere, egoera aldatzen ari da euskararen kaltetan.

1845ean bertako hizkuntza nagusia zen oraindik. Kultura ohituretan ekarri zituen aldaketez gain, mende amaieran gaztelaniadun etorkinen iritsierak kanpoko hizkuntza gehiago erabiltzea ekarri zuen.

Enrike Elizetxeak, ordea, Ibaizabal aldizkarian idatzitakoaren arabera, udalak euskarari bere lekua aitortzea erabaki du, bandoak beti gaztelaniaz egiten direla kexu diren herritar ugarien pozerako.

Ez da ahaztu behar herritarrek oso euskaltzaleak direla: gogoz ikusi eta txalotzen dira euskarazko antzezlanak eta bertsopaperak ere berehala saltzen dira.

1941eko otsaila: **DEBEKU SORTA EUSKARARENTZAT**

1936an gerra hasi zenetik igarotako urteak gogorrak izan dira euskararentzat. Izan ere, bata bestearen atzetik etorri baitira euskararen gaineko debekuak eta haren kontrako aginduak.

Gogora dezagun lehen debekua, 1936ko abenduaren 23koa izan zela, euskaraz zeuden edo Espainiako batasunari mehatxu egiten zioten kartelak kentzekoa.

1937ko ekainaren 9an, Carmelo Recalde alkateak berak herritar bat salatu zuen beste bati euskal izenaz deitu ziolako. Urte bereko urriaren 15ean hilobietako euskal inskripzioak kentzeko agindu zuten.

1939tik aurrera salaketa eta isun ugari izan zen euskal izenak erabiltzeagatik. Orduko hartan ere, mojen eskola salatu dute han barruan euskal izenak erabiltzen direlakoan.

JARDUERA: Hainbat urtetan euskararen inguruko albisteak dituzu hor idatzirik. Albiste horietan urte horretan euskarak bizi zuen egoera duzue islaturik, baita garaiko herritarrek euskararekin zuten harremana.

Irudikatu urte horretan zein albiste eman ote daitekeen euskararen gainean eta idatzi.

Koadernoko 14. orrialdea.

21. ZENBAT GARA?

Eta gaur egun nolakoa ote da euskararen egoera? Askotan ustean edo senean oinarritzen ditugu gure iritziak, eta nola ez, baita euskarari eta haren egoerari dagozkionak ere.

Horregatik, egoeraren benetako neurria izateko oso garrantzitsua da datuak izatea esku artean.

Lantzean behin, euskararen ezagutzaren eta erabileraren gaineko datu bilketa egiten da galdetegi, inkesta eta kale neurketen bidez.

Gure herrian ezagutzen diren azken datuak 2006koak dira. Hori dela eta, guk eskainitako datuetan urte horretakoak izango dira berrienak. Hutsik utzi dugu zutabe bat, datu berriak daudenean bildu eta ipin ditzazuen. Hala, ikuspegi

zabalagoa izango duzue alderaketak egin eta bilakaerak ikusteko.

Datu motei buruz, udaleko orrian, hiztunak auzoka banatuak; hiztunak adinka; lehen hizkuntzaren bilakaera, auzoen eta adinen arabera; etxean erabilitako hizkuntzaren bilakaera, auzoka eta adinka; hizkuntza tipologiaren bilakaera; kale neurketen emaitzak; eta azken 20 urteetako bilakaeraren zenbait datu kuantitatibo aurkituko dituzue, hala nola: herriaren datu soziolinguistikoak, euskararen ezagupena, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren irabazi-galera indizeak; herriko ikasleriaren ikastereduaren bilakaera; eta 2009-2010 ikasturteko herriko ikasleriaren maila ikastereduei jarraiki, besteak beste.

Guk horietako hiru paperera eraman ditugu koadernoan. Ikasleekin horiek aztertu eta haien gainean hausnartzea proposatu nahi dizugu.

Tauletako datuetan murgildu aurretik, herriko, auzoko eta ikastetxeko euskararen ezagutzaren eta erabileraren gaineko datuez galdetuko diegu ikasleei. Galdeketa kokatzeko, hainbat galdera egin diezaiekegu: non uste duzue dela euskararen ezagutza handiagoa, Beraunen ala Erdialdean? Eta erabilera? Zure auzoan zein adin tartetan daude euskaldun gehiago? Nolakoa da ezagutza adin tarte bakoitzean? Eta erabilera? Eta ikastetxean?

Hala, norberak duen esperientziatik abiatuta datuak biltzen ahaleginduko gara. Nahi izanez gero, azaldutako usteak jaso ditzakegu tauletan edo beste euskarriren batean.

Ondoren, koadernoan dituzten datu errealak aurkeztuko dizkiegu. Helburua horien gainean hitz egitea izango da.


Ohikoan irudikatutakoa eta errealitatea ez datoz bat. Irudikatutakoak datu hobeak izaten dira. Nahi izanez gero, datu horien arrazoiak zein izan daitezkeen ere eztabaidatu dezakezue. Ea zein ondoriotara heltzen diren!

	1986		2001		2006			
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Elebidunak	9.705	23,4	12.096	32,5	12.915	36,4		
Elebidun hartzaileak	5.329	12,9	7.701	20,7	6.018	16,9		
Erdaldun elebakarrak	26.417	63,7	17.464	46,9	16.588	46,7		
GUZTIRA	41.451	100	37.261	100	35.521	100		

Iturria: Eustat, 1986; Gaindegia, 2001; Eusko Jaurlaritza, 2006.

JARDUERA1: Ikertu ea hizkuntza gaitasunaren gainera datu berriagoak badauden. Hala bada, bildu eta taulan ipini

Hizkuntza gaitasuna auzoari jarraiki eskaini nahi dizugu segidan, 2006ko datuak dira.



Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2006.

Azkenik, euskara gaitasunak auzo bakoitzean izan duen bilakaera duzue ehunekoetan.

	1986	2006	20_
Landa eremua	86,3	84,4	
Erdialdea	34,4	48,9	
Gaztaño-Agustinak	24,8	42,8	
Pontika	21,6	42,2	
Olibet-Etxeberrieta	25,0	39,9	
Gabierrota-Lartzabal	25,0	38,5	
Alaberga-Versalles	31,6	35,5	
Iztietia	18,2	31,1	
Kaputxinoak	11,0	29,9	
Galtzaraborda	17,7	28,2	
Beraun	10,7	24,2	
Alde Zaharra	44,7		
GUZTIRA	23,4	36,4	

Iturria: Eustat, 1986; Eusko Jaurlaritza, 2006.
Alde Zaharra Erdialdearekin elkartu zuten 2006ko neurketan.

JARDUERA2: Datu berriagoak aurkitzen badituzu bildu eta taulan txertatu.

JARDUERA3: Tauletako datuak aztertu ondoren erantzun galdera hauek: Uste zenituen erakoak al dira datuak? Zerk harritu zaitu? Non espero zenituen hobeak/okerragoak?

Koadernoko 15. orrialdea.

22. NON EGITEN DA EUSKARAZ?

Ondoren, ikasleek beraiek euskararen erabileraren benetako egoera zein den ikus dezaten ondoko jarduera proposatuko diegu. Ikastetxetik kanpo ibiltzen diren lekuetan euskara zenbat lekutan eta zenbatek dakiten aztertu beharko dute: kiroldegian, dendetan, zineman, kulturetxean, eskola ordutik kanpoko jardueretan eta abar.

Leku horien zerrenda osatuko dugu lehenik denen artean, baita han harremana izango dugun pertsonena. Ondoren, ikasleen artean boluntarioak eska ditzakegu azterketa egiteko.

Ikasle boluntario horiek hurrengo bi asteetan zerrendatutako lekuetako jende horiekin euskarazko elkarrizketa bat sortzen saiatu beharko dute. Saiakera bakoitzean honokoa apuntatu beharko dute: nork erantzun dien euskaraz, nork gaztelaniaz baina galdetutakoa ulertuz eta nork eskatu dien gaztelaniaz egiteko.

Behaketa egin ondoren, bildutako emaitzez hitz egin dezakegu: zeintzuk izan diren emaitzak, zer espero zuten eta zer ez eta abar.

Gaian sakondu nahi izanez gero, hizkuntzak hautatzeari buruz hitz egin dezakegu: benetan hautatzen ote dugu erabiliko dugun hizkuntza edo hainbat aurreiritzi eta arrazoi tarteko zenbait jokabide barneratuta ditugu eta gaztelaniara bultzatzen gaituzte?

JARDUERA4: Taldean egin duzuen ikerketaren emaitzak ipini taulan.

Koadernoko 15. orrialdea.

23. EUSKARAREN ERABILERA IRUDIETAN

Jarduera honen bidez ikasleek euskararen erabileraren benetako egoera beren begiz ikusiko dute.

Ikasleak talde txikitan bana ditzakegu. Herriko edo auzoko txoko bat aukeratu eta aztertzeko eskatuko diegu. Argazki kamera edo telefonoaren bidez, argazkiak atera beharko dizkiote idatzizko paisaiari: graffitiak, kartelak, dendetako errotuluak, trafiko seinaleak eta abar. Talde bakoitzari 20 argazki aurkezteko eskatuko diogu. Talde bakoitzak gainerako gelakideei proiektore bidez aurkeztuko dizkie argazkiak.

Proiektzioa egiten ari diren bitartean, hainbat iritzi eman ditzakete eta guk ere galderak egin ditzakegu elkarrizketa sustatze aldera: Zerk harritu zaituzte? Zer espero zenuten? Zertan ez zineten sekula ohartu?, eta abar.

JARDUERA5: Aukeratu gehien harritu zaituen argazkia. Zergatik aukeratu duzun azaldu eta alboan itsatsi.

Koadernoko 15. orrialdea.

24. EUSKARAREN ETA BESTE HIZKUNTZEN EGOERA KALEA

Oraingoan ere, ikasleek beraiek ikusiko dute zein den euskararen eta gainerako hizkuntzen benetako egoera kalean.

Horretarako, kaleetan, plazetan, auzoetan eta ikasleek proposa dezaketen kaleko beste edozein lekutan hizkuntzen erabilera neurtuko dugu.

Ikasleen artean boluntarioak bilatuko ditugu berriro ere. Denen artean neurketak egiteko egunak eta lekuak zehaztuko ditugu.

Ingurunearen arabera, komenigarria izan daiteke talde bakoitzean hiru neurtzaile joatea: batek euskara neurtuko du, beste batek gaztelania eta besteak beste hizkuntzak.

Neurketa egiteko txitxirioen metodoa erabiliko dute: neurtzaile bakoitzak eskuineko poltsikoan txitxirio ale batzuk eramango ditu. Jendea zein hizkuntzatan ari den behatu beharko dute. Euskaraz ari badira, ardura hori duen neurtzaileak txitxirio bat pasako du eskuin poltsikotik ezkerrekora. Gaztelaniaz ari badira beste batek egingo du gauza bera eta beste hizkuntza batean ari badira, hirugarrenak lekualdatuko du txitxirioa. Amaieran, ezkerreko poltsikoan dituzten txitxirioak zenbatuz hizkuntza bakoitzaren erabileraren emaitzak ikusi ahal izango dituzte.

Hizketan eta entzuten ari direnak batuko dituzte: taldetxo batean bat hizketan eta bi entzuten ari badira, hizkuntza horretan ari direnak hiru lagun direla zenbatuko dute.

Azkenik, leku bakoitzean eta une bakoitzean hizkuntza bakoitzean zenbat lagun ari ziren jakin ahal izango dute. Emaitza horiekin eztabaida proposa dezakegu taldean: non hitz egiten da gehiago euskaraz, non gaztelaniaz, beste hizkuntza batean non aritzen dira, zergatik ote da eta abar.

JARDUERA6: Txitxirio aleak hartu eskuineko poltsikoan eta zorroztu belarria. Zein hizkuntzatan ari ote dira? Lagun bakoitzak hizkuntza bat zenbatzeko ardura izango du. Zure hizkuntza entzuten duzunean pasa txitxirio bat eskuineko poltsikotik ezkerrekora.

Amaieran zenbatu lagun bakoitzak zenbat txitxirio dituzuen ezkerreko poltsikoan. Zerrendatu duzuen leku bakoitzean egiten baduzue, erraz jakingo duzue zein hizkuntza den nagusi leku bakoitzean. Animo, bada, zorroztu belarriak!

25. GURE ETXEETAKO HIZKUNTZA OHITURAK

Auzoa, herria, ikastetxea eta abar ikertu ditugu. Baina zer gertatzen da gure etxeetan? Zein hizkuntza erabiltzen dugu?

Ikasle bakoitzak bere etxean ematen diren egoerak behatzea izango du helburu hurrengo jarduerak. Horretarako, [Inkesta](#) dokumentuan duzuen inkesta betetzea eska diezaiekezu ikasleei.

Bakoitzak bere inkesta beteta duenean, gelakide guztiena elkar jartzeko unea izango da.

Inkestaren emaitzak “tarta” batean irudika ditzakete, aitarekin eta amarekin erabiltzen duten hizkuntzaren arabera.

Nahi izanez gero, datu gehiago atera ditzakete etxeko hizkuntza ohituretan hausnartzeko.

JARDUERA6: Inkesta bete etxean dituzuen hizkuntza ohiturak kontuan izanik. Ondoren, gelako beste lagunenekin batera nahi dituzuen ondorioak atera ditzakezue: neskak ala mutilak dira euskaraz gehien aritzen direnak euskaraz dakiten gurasoekin? Nola egiten duzue neskak anaia-arrebekin? Eta mutilek? Nahi dituzuen datuen inguruan atera ditzakezue ondorioak. Eta gauza bera gertatzen ote da aldameneko lagunenean etxeetan? Galdetu, galdetu!

Koadernoko 15. orrialdea.

26. EUSKALDUNEN BILGUNEAK

Datuetan ikusi ahal izan dugunez, pixkanaka, urtez urte, gero eta herritar gehiago dira euskaraz dakitenak. Hala ere, oraindik, asko dira gaztelaniadun elebakarrak. Horrek askotan euskaldunen jarduna mugatu egiten du eta zenbaitetan zaila izaten da gure herrian euskaraz bizi ahal izatea.

Euskararen erabileraren kontua, aldiz, bestela da. Oso makal egiten du gora eta ez doa inola ere bat ezagutza mailarekin.

Hobekuntza horiek, dudarik gabe, herrian hainbat erakundek egiten duten lanari esker gertatu da. Eta aurrerantzean ere, euskarak aurrera egiten jarraitu behar badu, elkarte horien lanari esker izango da neurri handi batean.

Euskararen alorrean jarduten duten hiru elkarteren aurkezpena egingo dugu koadernoan. Ez dira horiek soilik herrian arlo horretan lanean ari direnak, baina egiten duten lana eta ekarria ezinbestekoa da herri mailan gauzatzen diren hainbat ekimen eta plangintza aurrera eramateko.

LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA

1992an sortu zen euskararen normalizazioaren alde eta herriko hizkuntza-komunitatearen trinkotzearen alde lan egiteko.

Hainbat arlotan garatzen du bere jarduna:

Kultura: Xenpelar Bertso Eskola; bertsolaritza irakatsi eta sustatzeaz gain, hainbat bertso saio eta lehiaketa antolatzen ditu urtean zehar: bertso-paper lehiaketak, sariak, gazteen bertso-afaria eta jai egun berezietako saioak; Santa Ageda eta Urte Zaharreko koplak; Gaztain erre jaia; Olentzero eta Mari Domingiren etorrera; Madalenetako pegatina lehiaketa eta abar.

Euskalduntzea: euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak elkartu eta euskaraz aritzeko aukera izan dezaten “Mintzalaguna” egitasmoa.

Haur eta gazteak: “Eskolatik kalera” haur eta gaztetxoek eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko egitasmoa.

Kanttalen etxea, Santsoenea kalea 2, 1.

bulegoa@lauhaizetara.net

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Herritarren artean euskalduntzearen aldeko sentsibilizazioa sustatzea eta euskaraz bizitzeko ilusioa eta grina sortzea du helburu, hizkuntza erasoei erantzunez eta mezu erdaldunak neutralizatuz. Bestalde, euskararen ofizialtasun osoa eskatzen dute Euskal Herri osoan.

Garrantzi handia ematen diete euskaraz bizitzeko hautua egiteari eta hura indartzea funtsezkoa dela pentsatzen dute. Bide horretan, egitea bezain garrantzitsua dute eragitea.

Hizkuntza eskubideen defentsa eta aldarrikapena egiten jarraitu nahi dute. Bide horretan, hainbat esparrutan lan egiten dute: udal, osasun eta justizia administrazioetan, irakaskuntzan, merkataritzan, norbanako mailan eta herri hedabideen alorrean, esaterako. Horretarako, euskararen ezagutzaz gain, erabileraren bermea ezinbestekoa dela iritzirik, urtetan martxan jarritako Euskaraz Bizi dinamikari sostengua ematen diote.

orereta@euskalherrianeuskaraz.org

UDALEKO EUSKARA DEPARTAMENDUA

Udalerriaren hizkuntza-normalizazioan garrantzi handia du: Goi-mailako erakundeetan eta herritarren arteko zubia delako; Udal mailako hizkuntza-politika berezkoa egituratzeko ahalbideak dituelako; herritarren artean eta hizkuntza-normalizazio mailan eredu izan daitekeen garrantzizko erakunde nagusia delako; legeak ere hala agintzen duelako.

Hala, Udalaren hizkuntza-politikak eredu eta eragile izan behar du udalerriko beste sektore guztientzat.

Hainbat egitasmo antolatu edo babesten ditu: irakaskuntza, euskalduntzea-prestakuntza, familia transmisio, administrazio, teknologia berri, lan mundu, aisia, kirola, komunikabide eta kulturgintza eremura bideratutakoak.

Herriko enparantza z/g.
euskara@errenteria.net

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko lanean diharduten hiru elkarte ezagutu ditugu. Urtean zehar hainbat proposamen egiten ditu bakoitzak.

Taldeka bilduz, eta gaiaren gainean egin dituzten hausnarketak eta ikerketak baliatuz, euskararen erabilera sustatzeko proposamenak lantzea proposatuko diegu.

Nahi izanez gero, esparruak mugatu ditzakegu lana errazte aldera, adibidez:

proposatu ekimen bat jolas-orduan euskararen erabilera areagotzeko; proposatu ekimen bat entrenamenduetan euskaraz gehiago aritzeko eta abar. Proposatutakoa ekimen bat izan daiteke, edo kanpaina bat edo lehiaketa bat edo bururatzen zaiena.

Proposamen horiek denen artean osatu eta aberastu eta egoki ikusten baduzue aipatu elkarteetara bidera daitezke ideia moduan.

Nahi izanez gero kartelak, kantuak, lemak eta abar sor ditzakete, nahi adina sakon daiteke jarduera honetan.

JARDUERA1: Ezagutu ditugu herriko hainbat elkartek euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egiten dituzten jarduerak. Proposatu zuk ere bestela bat. Zehaztu non eta nola burutu.

Koadernoko 16. orrialdea.

27. EUSKARAREN BUELTAN

Jakina da euskal hiztunen komunitatea zabaldu eta trinkotuko bada ezinbestekoa dela, beste hainbat aldagairekin batera, norberak kontzientzia hartu eta euskararen aldeko hautua egitea.

Eta horretarako, gure ustez, funtsezkoa da euskararekiko sentsibilizazioa izatea: zein egoeratan dagoen jakitea, gure herrian historiaren zehar izan duen bilakaera ezagutzea, egun euskararen alde herrian egiten diren ekimenak ezagutzea eta abar.

Horiekin guztiekin batera, beharrezkoa da norberak bizitzako hainbat arlo eta espaziotan dituen hizkuntza ohituren gainean hausnartzea. Azterketa hori egiten lagundu nahiko genieke datozen jardueretan.

Hasteko, azken denboran izan dituzten sei esperientzia positiboak idazteko eskatuko diegu. Ondoren, esperientzia bakoitza zein hizkuntzatan izan den zehazteko eskatuko diegu.

Ariketa horren bidez, hizkuntza bakoitzak norberarentzat zenbaterainoko pisua duen ikusi ahal izango duzue: Bi hizkuntzatan gauzatutako esperientziak agertzen ote dira? Nolako esperientziak ote dira hizkuntzen

arabera? Hizkuntzetako batek indar gutxi badu beste galdera hau ere egin daiteke: Esango al zenituzke euskaraz izandako sei esperientzia positibo? Galdera horri erantzutea asko edo gutxi kostatu zaion balora liteke, baita nolako esperientziak diren ere.

JARDUERA1: Idatzi azken aldian egin dituzun 6 gauza gustagarri edo dibertigarrienak... adi! euskaraz izan bada gorriz idatzi, gaztelaniaz izan bada urdinez.

Koadernoko 17. orrialdea.

Jarduera honetan sakondu nahi baduzu, hainbat galdera egin ditzakezu taldean elkarriketa sustatzeko.

JARDUERA2: Eskolatik kanpo norbait euskaraz zuzentzen bazai,t nola jokutzen dut? Ezezagun batengana zuzentzerakoan zein hizkuntzatan hitz egiten diot? Irakasleek “egin euskaraz” esaten badidat,e zer sentitzen dut? Etxekoek euskaraz hitz egiten badug,u nola hitz egiten dugu euskaraz ez dakien norbait gurekin dagoenean?

28.EUSKARAREN ERABILERA NEURTUZ ESKOLAN

Ikasleek beraiek eskolan euskararen erabileraren benetako egoera zein den ikustea nahi dugu. Horretarako, ikasleek erabilera neurketa bat egingo dute ikastetxe barruan.

Ikasleen artean neurketa egiteko boluntarioak eskatuko ditugu eta aste batez, hainbat tartetan ikaskideek darabilten hizkuntza neurtzeko eskatuko diegu: sarrera eta irteera tarteetan, jolas-orduan, jangelan, autobus geltokian eta abar. Koadernoan bi zutabe hutsik utzi ditugu neurketa beste tarte batzuetan gehiago egin nahi badute gehitu dezaten.

Neurketa egiteko txitxirioen metodoa erabiliko dute. Neurketa honetan binaka joango dira. Lagun bakoitzak zenbait txitxirio ale eramango ditu eskuineko poltsikoan. Ikaskideak euskaraz ari badira bikotekide batek pasako du txitxirioa eskuin poltsikotik ezkerrekora. Amaieran, txitxirioak zenbatuz

jakingo dute neurketaren emaitza.

Lehen egin duten bezala, taldetxo batean lagun bat hizketan eta hiru entzuten ari badira, lau lagun zenbatuko dituzte hizkuntza horretan.

JARDUERA1: Ikastetxeko eremu bakoitzean egindako neurketen emaitzak:

Koadernoko 17. orrialdea.

29. EUSKARA NOIZ ETA NOREKIN ERABILTZEN DUT

Jarraian euskara noiz eta norekin erabiltzen duten ikusten lagunduko diegu. Era berean, galdetuko diegu norekin nahiko luketen gehiago erabili.

Jarduera hau egiteko erabilera aitortuaren dinamika erabiliko dugu: hau da, beraiek esango digute noiz, norekin eta zenbat euskara erabiltzen duten.

Hainbat modutara egin daiteke dinamika hori, gure ustez errazagoa egingo zaie galdeketa hein batean bideratuz gero: izendatu lau lagun; zerrendatu asteburuan ibiltzen zaren lau leku; leku horietan zenbat euskara eta norekin erabiltzen duzu? Eta abar.

Beste aukera bat galdeketa asko bideratzea da: zure eskuinera esertzen denarekin nola egiten duzu gelan? Jangelan zure parean esertzen denarekin nola egiten duzu? Eta abar.

Ondoren, galdetuko diegu norekin eta zenbat gehiago erabiltzeko prest dauden. Hori ere galdera oso irekia edo oso bideratua izan daiteke: zure parean esertzen denarekin eta abar.

JARDUERA1: Lau lagun eta lau leku aukeratu. Ondoren, lagun bakoitzarekin eta leku bakoitzean norekin zenbat euskara egiten duzun idatzi behar duzu sailkapenean dagokion tokian.

Koadernoko 17. orrialdea.

JARDUERA2: Hizkera informalarakin edo lagunartekoarekin ditugun mugak



ikustea nahiko genuke segidan. Horretarako, bi taldetan banatuko ditugu ikasleak. Egoera informaletako esamoldeen gai bat proposatuko diegu: irainak,

adarra jotzeko esamoldeak, piropoak, animoak, beldurra adieraztekoak eta abar.

Minutuko epean ikasle bakoitzak ahalik eta zerrenda luzeena idatzi behar du. Talde batekoek euskaraz idatziko dituzte eta gaztelaniaz besteek.

Ondoren, euskarazko zerrenda bat irakurriko du batek eta besteek beren zerrendetatik osatuko dute.

Azkenik, eztabaida sortuko dugu: zein hizkuntzatan idatzi dituzue gehiago? Zein esamoldek dute zuentzat indar handiena? Eta abar.

Jarduerari jarraipena eman nahi izanez gero, gela osoari hainbat galdera egingo dizkiogu: zenbat txiste kontalari ezagutzen dituzue? Zenbat euskaraz aritzen direnak? Ekarri burura zuen gurasoak lagunei txisteak kontatzen: zein hizkuntzatan ari dira? Kokatu zuen burua futbol partida garrantzitsu batean: jendea epaileari irainka ari zaio, zein hizkuntzatan irudikatzen duzu?

Beste eztabaida bat ere sor dezakegu: zergatik identifikatzen ditugu egoera asko gaztelaniarekin (horrela bada)? Hainbat egoeratan zergatik bururatzen zaizkigu gaztelaniazko esamolde gehiago (horrela bada)?

Edonola ere, horren guztiaren helburua da konturatzea askok erraztasun handiagoa izaten dugula gaztelaniaz. Erraztasun horrek, ordea, zaildu egiten du euskaraz gero eta gehiago egitea. Horretaz konturatzen badira, ederki!

JARDUERA3: Zenbaitetan, euskal komunitateak euskararen erabileraren gaineko kontraesaneko mezu asko ematen ditu. Mezu horiek eta haien kontraesanak ikusten saiatuko gara.

Euskal komunitateak ematen dituen hiru mezu aurkeztuko dizkiegu.

Taldetxotan banatu eta mezu horiek antzezteko eskatuko diegu. Antzezpen bakoitzaren ostean, kontraesan horiek bizi dituzten oinarrian zer dagoen aztertuko dugu.

Hainbat adibide:



- *Seme-alabekin euskaraz egitea (eta euskaraz egiteko eskatzea) baina gurasoen artean gaztelaniaz egitea.*
- *Etxeko hizkuntza euskara izatea, baina etxetik kanpo leku guztietan gaztelaniaz hastea elkarrizketa.*
- *Euskara eta gaztelania erabiltzea elkarrizketa berean: euskaraz hasi, gaztelaniaz jarraitu, tarteka euskarara itzuli... Elkarrizketaren zati handiena gaztelaniaz egitea euskaraz ari direlakoan, alegia.*

Ikasleentzako benetakoak diren egoerak eta mezuak topatuz gero, jarduera oso egokia izan liteke. Egoerak beraien errealitatetik urrun badaude, asko kostako zaie kokatzea eta ekarpenak egitea.

JARDUERA4: Euskararekiko nolako aurreiritziak izan ditzaketen aztertuko dugu segidan. Horretarako, hizkuntzaren balioa izeneko dinamika egingo dugu. Hainbat irudi eskainiko dizkiegu eta zein hizkuntzatan lortzen dituzten galdetuko diegu, adibidez: Internet, Rock kontzertua, Herri Kirolak, telebista eta abar.

Hasieran, irudiak ikusi eta erantzuna eskatuko diegu. Ondoren, berriz ipiniko ditugu irudiak eta banan-banan aipatuko ditugu, elkarrizketak sortuko ditugu erantzunei buruz.

Nahi izanez gero, hainbat adibide eraman ditzakegu prest arlo guztietan euskaraz zer egiten den ikusteko, edo euskararekin erabat lotzen duten arlo batean gaztelaniak edo beste hizkuntza batek zein pisu duen ikusteko.

JARDUERA5: Gaztelaniarekin erabat lotzen dituzten jarduera horiek euskaraz ere egin daitezkeela erakutsiko diegu. Hala, galderen bidez saiatuko gara ikasle guztiek gaztelaniaz egiten duten zerbait aurkitzen: eskola-orduz kanpoko jardueraren bat, kultur munduko zerbait, eguneroko ohiturekin zerikusia duen zerbait, esate baterako. Gauza bat edo bi, behintzat, aurkitu behar ditugu.

Hurrengo saiorako arlo horretan euskaraz zer egiten den prestatuko dugu. Hori

aurkeztu edo erreferente bat bilatuko dugu, jarduera hori euskaraz egiten duena. Ikusarazi nahi diegu, gaztelaniaz egiten duten hori euskaraz ere normaltasunez egin daitekeela, eta horri begira balio dezakeen edozein tresna erabiliko dugu.

Sakontzen jarraitu nahi badugu, euskaraz edo gaztelaniaz egitea aukera kontua dela esaten digutenean, benetako aukerarik badagoen edo ez ikusi ahal izango dute; hau da, euskaraz egin daiteke jarduera hori, baina ematen al

digute euskaraz egiteko benetako aukerarik?

JARDUERA6: Hizkuntza batekin baino gehiagorekin bizi garela ikusi dugu,

baina bakoitzarekin nolako harremana izan nahiko genukeen hausnartuko dugu segidan. Horretarako taldeka banatuko ditugu eta hiru egoera aurkeztuko dizkiegu. Bi lehenengo egoerak taldeka erantzuteko dira eta hirugarrena, berriz, bakarka.

- 1. Ingalaterrako herri batean bizi zarete. Ingelesean egiten duzue. Ez duzue bidaiatzea gogoko. A: zer da ingelesa zuentzat? B: zer dira beste hizkuntzak (gaztelania, frantsesa, txinera...) zuentzat, adibidez: hizkuntza bakarra, bizitzeko hizkuntza, hitz egiteko eta espresatzeko hizkuntza eta abar.*
- 2. Alemaniatik Errusiara joan zineten lanera. Han bizi zarete azken hamar urteetan. Lanerako errusiera eta ingelesa behar dituzue. Zer da zuentzat alemana? Zer da ingelesa? Zer da errusiera?*
- 3. Euskal Herrian bizi zarete. Euskaraz eta gaztelaniaz badakizue, ingelesa ere bai (eta batzuek beste hizkuntzaren bat ere bai). Zer da zuentzako horietako bakoitza? (zein da etxeko hizkuntza, zein harremanetakoa, nola izatea nahi nuke...)*

Ondoren, beste zenbait galdera egin ditzakezu elkarrizketak sortzeko: Gustura al nago nire hizkuntzekin ditudan harremanekin? Nolakoak izatea nahiko nuke?

30. HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEKO ERRONKA

Askotan ohituraz egiten diogu lagun bati hizkuntza batean eta beste bati bestean. Ondorioz, zenbaitetan, askotan behar bada, gaztelaniaz aritzen gara euskaraz badakitenekin. Alda ote daitezke ohiturak, erraza ote da? Horretan ahaleginduko gara hurrengo jardueretan.

Lehenik, hizkuntza ohiturak aldatzeko erronka bat proposatzeko eskatuko

diegu, ohiturak alda daitezkeela eta horretan ongi pasa daitekeela, gainera, ikus dezaten.

JARDUERA1: Erronka zehatza eskatuko diegu, ikastetxean dauden bitartean betetzekoa. Gure laguntza izango dute horretarako, gogoraraziz, errefortzu positiboak emanez eta abar. Bi edo hiru kide aukeratu beharko dituzte. Koadernoan hauxe jarri beharko dute:

NIRE ERRONKA:

Norekin egingo dut?

Zein da abiapuntua?

Zenbat egingo dut? Guztia, Gehiena, Batzuetan.

Zein izango da urrats zehatza?

Lortu al dut?

Epe bat izango dute erronkarako, astebete, adibidez. Garrantzitsua da ez hastea epe oso luzeekin, erronkak benetan lor ditzaten eta errefortzu positiboak emanez pauso handiagoak ematera motiba daitezen.

Pauso zehatzaren ideia egokia izan daiteke, adibidez: erronkak irauten duen bitartean, bi edo hiru pertsona horiekin topo egiten dudanean beti modu berean jokatu dut: elkarriketa esaldi jakin batekin hasi, goizetan ikastetxera iristean elkarriketa bat sortu eskolak hasi aurretik eta abar. Era horretan, norberak prozedura oso argi edukitzean, errazagoa izango zaie lortzea.

Koadernoko 17. orrialdea.

JARDUERA2: Lehendik erabilera aitortuaren dinamika egin badugu, hura hartuko dugu abiapuntutzat. Elkarriketa sortuko dugu ikasleekin: hizkuntza ohiturak aldatzea erraza ala zaila ote da? Hizkuntza ohitura aldaketaren bat jolas moduan planteatzeko gai izan al gaitzke? Ikasleekin batera hizkuntza ohitura aldaketak jolas moduan egiteko ideiak biltzen ahaleginduko gara.

JARDUERA3: Erronka oso sinplea proposatuko diegu eta guk erraz lagundu ahal izango dieguna.

Batetik, kirolean erabiltzen ditugun esamoldeei buruz galdetuko diegu. Ideien ekaitza moduko bat egin daiteke: zeintzuk erabiltzen ditugu? Animoak emateko, kexatzeko, kideei gauzak esateko eta abar. Euskarazkoak eta beste

hizkuntzetakoak bildu nahi ditugu.



Ondoren, behaketa egiteko proposatuko diegu. Boluntario batzuk hartuko ditugu eta eskatuko diegu jolas-orduetan beraiek baino helduagoak diren ikasleengana hurbiltzeko futboleak ari diren bitartean eta zein esamolde

erabiltzen ari diren jasotzea.

Horiek bildu eta gero, esamolde guztiei euskarazko baliokidea bilatzen saiatuko gara.

Erronka bat proposatuko diegu: egun jakin batean, euskarazko esamoldeak soilik erabiltzea. Hainbat esamolde hautatzeko dinamikaren bat egingo dugu, horiek erabiltzen hasteko eskatuko diegu eta erronkaren eguna finkatuta utziko dugu: Kirolaren egunean, adibidez.

Egun horretan erronka gogoraraziko diegu, lortzera animatuko ditugu eta gure buruarentzat prozedura bat zehaztuko dugu: sumatzen badugu tentsioa jaitsi dela gu sartuko gara tartean, lelaren bat errepikatuko dugu, errefortzu positiboak emango ditugu eta abar.

Erronkaren ondoren balorazio bat egingo dugu: erraz lortu al dute? Ongi pasa al dute? Non izan dituzte zailtasunak?

JARDUERA3: Nahi izanez gero, erronkaren gaian sakon dezakegu. Ikastetxearen eremua gaingituko duen erronka bat proposatzeko eska diezaiekegu.

Hiru edo lau laguneko taldeak osatzeko eskatuko diegu. Talde bakoitzak bere buruari bi asterako erronka jarriko dio, ahalik eta zehatzena. Helburu lorgarriak izan daitezten lagunduko diegu. Erronkak anitzak izan daitezke: egoera jakin batzuetan beraien artean euskaraz egitea, beste batzuen kasuan dena euskaraz egitea, beste batzuk beste taldeko batzuetakoekin dena euskaraz egitea (beraien artean lortu dutelako) eta abar.

JARDUERA4: Erronkekin jarrai dezakegu, oraingoan nahiko erronka berezia proposatuz. Erronka honetan familiaren parte hartzea eskatuko da.

Lehenik eta behin, familietan hizkuntza ohiturak zein izan daitezkeen galdetuko diegu hainbat kasu kontuan hartuz: gurasoak euskaldunak direnean (euskaraz egiten dutenean eta ez dutenean), ez direnean, bietako bat badenean... Ondoren, kasu bakoitzean, euskarari dagokionez aurrerapauso txiki batzuk zeintzuk izan daitezkeen aztertuko da: ideien ekaitza moduko bat egin daiteke.



Azkenik, erronka bat proposatuko diegu: bakoitzak koka dezala bere familia multzo batean, aukeratu ditzala bi aurrerapauso eta proposa dezala etxean aurrerapauso horiek ematea.

Garrantzitsua da hemen ere epe laburra ipintzea, aste bete edo bi astekoa, gehienez.

JARDUERA5: Euskaraz gero eta gehiago egiteko hautua hartzen lagundu nahi diegu. Horretarako, euskarri batean bi edo hiru mezu eta gomendio batzuk

banatuko dizkiegu, baita norberak bere buruari erronka txikiak jartzeko pistak ere.

Oinarrizko euskarri bat izan daiteke, fitxa bat, edo bereziagoa: horman jarri daitekeen zerbait, poltsan eraman daitekeen zerbait, teknologia berriekin lotua eta abar.

Bi atal izango ditu. Batean mezuak eta gomendioak: nik euskara gero eta gehiago egin nahi dut, harremanak euskaraz sortzen saiatuko naiz, gustura aritu nahi dut horretan eta abar.

Bestean, berriz, erronketarako pistak jarriko ditugu: ohiturak aldatu nahi badituz, astebeteko erronkak jarriko dizkiot nire buruari: aukeratu egoera, jolas bihurtzeko urratsak eman, prozedura zehaztu eta abar.

Gehiago sakondu nahi izanez gero, euskara gero eta gehiago erabiltzeko ahalegina egiten duten eta erreferente izan daitezkeen bideo bat jar dezakegu. Era berean, erreferente izan daitekeen norbait eraman dezakegu gelara. Pertsonaia ezagunak edo gertuko erreferenteak izan daitezke. Oso aproposa izan daiteke ikasle izandako hainbaten iritziak eta esperientziak jasotzea: ikastetxeko lagun guztiekin euskaraz hitz egiten al nuen? Gaur egun nola egiten dut? Zein ohitura lortu dut aldatzea? Zeintzuk ez?

Nahi izanez gero, pertsonaien atalean aurkeztu dugun Sorkun kantariaren esperientzia aurkez diezaiekegu. Horretarako, [HABE](#) aldizkariak eginiko [elkarriketa](#) bana diezaiekegu ikasleei.

JARDUERA6: Irakurri Sorkuni eginiko elkarriketa. Ezagutzen al duzue horrelako beste esperientziaren bat?

JARDUERA7: Hainbat etorkinek lortu dute euskaraz ikastea. Ezagutzen al duzu inor? Kontatu bere historia:

Koadernoko 17. orrialdea.

31. GURE AITONA/AMONAREN BIOGRAFIA

Jarduera honetan bakoitzak bere aitona-amonen artean bat aukeratuko du haren biografia osatzeko.

Lana bakarka eta taldean egingo dute: bikoteka, prestaketa aldian eta baita zuzenketa, azterketa eta informazioaren aurkezpena egitean. Bakarka, berriz, informazioa bildu eta testuei forma ematean.

Gelako aitona-amonen biografiaren bilduma egin dezakegu. Bilduma horren bidez, taldearen historia hurbila hobeto ezagutu dezakegu eta, nahi izanez gero, historia horrekin zerikusia duen hainbat gairen gaineko erakusketa egin dezakegu: lanbideak, etxeko hizkuntza, jaioterriak, bitxikeriak eta abar.

Hala, norberaren historiari buruz gehiago jakitea lortuko dugu.

Ekoizten doazen tresnak eta testuak gordetzeko karpeta bat erabiliko dute.

Oso garrantzitsua da ikasleak jabetzea zer den proiektu hori burutzerakoan lortu nahi duguna. Segidan, proiektu hau burutzean landu daitezkeen helburuak aurkituko dituzu hiru multzotan sailkatuak. Denak ezingo dituzunez egin, multzo bakoitzetik helburu bat eta kooperaziotik bi aukeratzea gomendatzen dizuegu.

Aukeraketa egin ondoren, arbelean idatziko ditugu. Azaldu eta eztabaidatu ondoren, gelan ipiniko ditugu leku ikusgarrian proiektua burutzen ari diren bitartean gogora ditzaten.

Testu motarekin zerikusia duten helburuak:

- Gertuko pertsonen historiak kontatzen ikasi.
- Biografiaren balizko egituraren bat ezagutu eta erabili.
- Denbora sekuentzia bat jarraituz, aitona/amonaren bizitza era ordenatuan agertu.

Testuaren produkzioarekin zerikusia duten helburuak:

- Txantiloi baten laguntzaz informazioa jaso.
- Biografian txertatuko den informazioa aukeratu eta antolatu.
- Datu solteak, ideia-eskemak paragrafo garatuetan bihurtu.
- Kontrol zerrendak erabili idazteko eta berrikusteko.
- Testuaren idazketaren lagungarri izango diren tresnak prestatu eta erabili.
- Testuaren lehen bertsioak elkarrekin orraztu.
- Testuaren bertsioak elkar jarri lortutako garapena ikusteko.

Kooperazioarekin zerikusia duten helburuak:

- Talde-gelari ideiak eskaini.
- Kideen proposamenak onartu eta baloratu.
- Eskemak osatu elkarrekin.
- Bikoteka informazioa eskaini elkarri.
- Bikotea osatzen duen kide bakoitzak eskainitako informazioa berreraiki.
- Birpasatu kooperazioan, bikoteka eta baita talde handian ere.

Jardueraren garapena

- a. Biografia ereduen irakurketa gelan.

Zer egin eta zer ikasi argitu ondoren, biografia ereduen ([Biografiak](#)) irakurketari ekingo diogu taldean. Garrantzitsua da ikasleei gogoraraztea beren aitona edo amonaren biografia idatzi ahal izateko, aurrez besteek idatzitako biografiak irakurri, behatu eta aztertu beharko dituztela.

Arbelean idatziko ditugu ohikoan biografia batek erantzuten dituen galderak ([Biografia osatzeko galderak](#)). Ondoren, eskaintzen diren biografiak banatuko dizkiegu ikasle guztiei. Irakurtzen hasi aurretik, azpimarratuko diegu arbelean dauden galderei erantzuten dioten datuetan jarri behar dutela arreta. Izan ere, biografia galdera guztiak erantzunez osatu behar dute.

Une horretan, taldea, bere osotasunean, proiektuan inplikatzeari nahi da. Hurrengo urratsetan bikotearekin zer egin behar duten ulertu behar dute.

Zer behatu:

- Galderei dagozkien informazioak biografian identifikatu dituzten.
- Proiektua egiteko interesa agertu duten.

- b. Biografia ereduen irakurketa bikoteka

Bikoteka antolatuko dugu gela. Bikote bakoitzak biografia bat jasoko du ([Biografiak](#)) eta galderen segida jarraituz aztertu beharko du ([Biografia osatzeko galderak](#)).

Zer behatu (gehiena interesatzen zaigun bikotea aukeratu):

- Galderak erantzuten dituzten informazioak identifikatu dituzten biografian.
- Bikotekidearekin elkarlanean egin duten (biak saiatu dira informazioa aurkitzen, eztabaidatzen, eta azal daitezkeen gatazkak konpontzen).
- Jarduerarekiko interesa baduten.

- c. *Bikoteka aztertutako biografien elkarjartzea*

Elkarrietzeta antolatuko dugu taldearekin. Zerrendako galderak jarraituz, ikasleek landutako biografiek gai horien erantzunak dituzten ikusiko dugu. Galdera baten erantzunak aurkitutakoan, arbelean lehenago marraztu dugun siluetan ([Datuak biltzeko silueta](#)) idatziko dugu galdera horri dagokion izenburua edo atala. Hala, elkarrekin osatuko dute biografia guztiek komunean duten eskema. Ondoren, ikasle bakoitzak biografia idazteko erabiliko duen gidoi-txantiloia osatuko du ([Gidoi txantiloia](#)). Guztiek beren karpetan gordeko dute gidoi hori gero erabili ahal izateko.

Zer behatu:

- Parte hartzeko interesa agertu duen.
- Hezitzaileak eskatutakoari erantzuten lagundu duen.

d. Biografia idazten ikasten. Nola bildu daiteke hainbat informazio biografia batean?

Oraingo lanak zerrendak osatzean datza: izenburuekin, biografiei hasiera eman eta amaiera emateko moduekin. Zerrenda horiek norberak bere karpetan gordeko ditu.

Talde handian: landutako biografia guztietan izenburua, hasiera eta amaiera identifikatu beharko dituzte. Horretarako, arbelean koadro bat egin eta bertan jasoko ditugu ([Formulen zerrenda](#)).

Interesatzen zaigu ikasleak jabetzea izenburuak pertsonaiaren izena jasotzen duela eta hobekien definitzen duen ezaugarriaren bat (familia erlazioa, lanbidea, zaletasunak eta abar). Gehienetan biografiako protagonistaren izenarekin eta hura identifikatzen duen hainbat datuekin hasten da eta hainbat eratan amaitzen dira, baina beti protagonista horren azken datu bat emanez (heriotza, gaur egungo jarduna eta abar).

Horrekin, baliabide linguistikoak eskaini nahi zaizkio biografia idazteko.

Zer behatu:

- Hasierak eta amaierak identifikatu diren.
- Parte hartzeko interesa agertu duen.
- Hezitzaileak eskatutakoak erantzunez lagundu duen.

e. Biografia osatzeko informazio bilketa

Ikasle bakoitzak biografia egiteko aukeratu duen aitona edo amona zehaztuko du. Galdera segida erabiliz ([Biografia osatzeko galderak](#)), bakoitzak dagokion informazio bilketa egingo du.

Zer behatu:

- Informazio bilketa egin duen.
- Era autonomoan egin duen.
- Datu nahikoak eta garrantzitsuak eskaini dituen.

- Lanean murgildu den.

f. Informazioaren antolaketa bikoteka

Aitona/amonak bakoitzaren gaineko informazioa bildu ondoren, bikote bakoitzak hura antolatuko du gidoi-txantiloia zituen atalak jarraituz ([Gidoi txantiloia](#)).

Bikotearen zeregina izango da banaka jaso duten informazioarekin eskema bateratu batera iristea. Ondoren, eta eskema hori erabiliz, bakoitzak bere biografia idatzi beharko du.

Bikotekideen artean ere eztabaidatuko dute jarriko duten izenburua eta karpetan gorderik dituzten adibideez baliatuz biografia nola hasi eta nola amaitu eztabaidatu beharko dute. Biografia bakoitzaren egileak erabakiko duen arren, azkenean.

Zer behatu (bikote bat aukeratuta)

- Biografia idazteko eskema bateratu batera iritsi diren.
- Eskema horretara iristeko lagungarri gisa eskainitako gidoia erabili duten.
- Bikotekideek helburua lortzeko elkar lagundu duten.
- Adostasunera iristeko moduak:
 - Batak bestea menderatuta.
 - Elkar ulertuta.
 - Bikotekideren baten inhibizioz.
- Lanarekiko interesa duten eta ekimena agertu duten.

g. Biografiaren erredakzioa banaka

Bikotearekin egindako eskema abiapuntu izanik, biografia erredaktatuko dute banaka.

Zer behatu:

- Idatzia biografiaren oinarritzora lotzen dela: aitona/amonaren bizitzari buruz informatzen du testu mota horren atalak jarraituz.
- Ideiak ordenatuak eta elkarren artean egoki erlazionatuak daudela.
- Biografia ulertzeko lagungarria den denbora sekuentziari eusten diola.
- Paragrafo/esaldiak elkarrekin egoki lotuak daudela dagozkien lokailuen bidez.
- Testuak behar duen jarraitasuna duela, errepikapenik gabe.
- Testua formalki egokia dela: ortografia, lexikoa, morfologia, sintaxia eta abar.

h. Biografien ikuskapena bikoteka

Biografiak idatzi ondoren, beste bikotekide batekin elkartuko dira. Bikotekide berriek elkarrekin trukatu dituzte idatzi dituzten biografiak zuzentzeko ([Biografia zuzentzeko txantiloia](#)). Egindako zuzenketekin beharrezkoa ikusten dena berri idatzi eta biografia gelako gainerakoei aurkeztuko zaie.

Zer behatu:

- Testua hobetzeko iradokizun egokiak eskaini dituen.
- Kideak eskaintako iradokizunak erabili dituen bere testu idatzia hobetzeko.
- Hobekuntzak identifikatu dituen azken testuan.
- Kidearen laguntza erabakigarria baloratu duen bere testua hobetzeko.

i. Jardueraren balizko jarraipena:

Interesgarria irudituz gero, jarduera horren jarraipena planteatu liteke. Egin diren beste jarduerak lan kooperatiboaren emaitzak, berriro, espezifikoki baloratu daitezkeelarik. Iradokizun modura hainbat aukera aipatu ditugu:

- Biografia guztiak jasotzen dituen fitxategiaren osaketa. Fitxategi hori, irakurketa txoko gisa erabili daiteke (kontaketa interesgarriak dira) edo, behar denean, kontsulta modura.
- Gelako kideen historiari buruzko txosten bat egin daiteke, interesgarrienak iruditzen diren alorren arabera sailkatuta.
- Gelakideen historiari buruzko erakusketa bat egin daiteke.

JARDUERA: Aukeratutako aitona/amonaren biografiaren behin betiko testua dutenean, koadernoko orrian idazteko eskatuko diegu. Orria zuriz dago, testua nahieran diseinatu eta maketatu dezaten: eskuz idatzi dezakete, inprimatutakoa itsatsi, alboak kolorezta ditzakete, argazkiak itsatsi... irudimenari lanean uzteko txokoa izango da, bakoitzak bere gustuaren arabera eraiki dezan orrialdea.

Koadernoko 18. orrialdea.

32. GURE PROIEKTUA ERAIKIZ

HERRIA EZAGUTZEN! egitasmoko unitate didaktikoetan herriko ondare kulturala ezagutarazten ahalegindu gara. Horretarako, historian zehar abiatu ginen eta garaian garaiko gure herritarrak nola bizi ziren, zer arazo zituzten, herria nola zegoen eta abar azaltzen saiatu gara.

Orain, ordea, ikasleei utzi nahi diegu lekua. Horretarako, talde txikitan proiektu bat garatzeko eskatuko diegu. Edozein garai edo gai aukera dezakete.

Oso garrantzitsua da ikasleek lana helburu jakinarekin egitea, adibidez: bildutako materialaren gaineko aurkezpena egitea, horretarako ikasleak binaka lan egitea eta gidoi bat osatzea proposatu nahi dizuegu; power point bat osatzea, www.slideshare.net googleko tresnen bidez sarean jarritz etxekoek eta herritarrek ikus ditzaten eta abar; antzerki edo ikuskizun bat egitea landutakoa aurkezteko; erakusketa bat antolatzea gainerako ikaskideentzat eta bereziki HERRIA EZAGUTZEN! egitasmoaren barruan gaia jorratzen ari diren ikasle txikiagoentzat, gurasoentzat edo herritarrentzat.

Era berean, proiektuaren bidez zer den nahiko genukeena argi azaltzea funtsezkoa da: beste garai batean herria nolakoa zen, herritarrak nola bizi ziren eta zer egiten zuten, zer arazo zituzten eta abar ezagutu eta besteei azaltzea.

Koadernoan proiektuaren fitxa tekniko modukoa izango dute gida modura.

Taldea osatuta, lanean hasi aurretik, zein garai edo gai landuko duten erabaki beharko dute. Ondoren, informazioa biltzen hasi beharko dute, era guztietakoa: argazkiak, dokumentuak, objektuak eta abar.

Bildu dutena ikusita, erabaki beharko dute proiektua zein eratan eta nori aurkeztu: power point baten bidez, erreportaia moduko bideo motz batez, ahozko aurkezpen bat erabiliz, erakusketa edo beste moduren batean.

Proiektuaren gidioa egin beharko dute, ondoren. Nahi izanez gero, gelako beste kideekin kontrasta dezakete osatzeko eta hobetzeko.

Gidoia garatzeko unea izango da segidan, ekoizpena egitekoa. Eta hori egin eta gero, ezagutzera nola eman aztertzeko garaia izango da.

Horretarako, proiektuan aurkeztutakoaren sinopsi bat egitea proposatuko diegu, balizko hartzaileei aurkezpen eskaintza egitean erabil dezaten. Eta azkenik, iragarki bat egiteko proposamena egin dizugu.

Aurkezpena ikasle txikiagoei egin behar badiete, lehenago euskararen inguruan hartutako erronken haritik, txikiagoen eredu izatera gonbidatuko ditugu, eta hori euskara gero eta gehiago erabiltzeko urrats txiki bat izatea. Beraz, azalduko diegu garrantzitsua dela euskararen erabilera zaintzea beraiek txikiagoen eredu direlako. Izan ere, haiekin harremanetan jartzen direnean, euskaraz egiten sumatzen badituzte eredu bilakatuko baitira.

Hori guztia dituzten bitartekoen arabera zabal dezakezue: sarearen bidez, ikastetxeko web-orria bidez, ikastetxeko iragarki taulan ipiniz eta abar. Ea noraino heltzen den gure ikasleen irudimena!

JARDUERA1: Talde txikietan antolatuko ditugu ikasleak. Talde bakoitzari urte hauetan orain arte landutako garai edo gai bat aukeratzea eskatuko diogu. Horren arabera, proiektuari izenburua jartzeko eskatuko diegu.

Ondoren, eta koadernoan duten fitxa teknikoa erreferentzia modura erabiliz, proiektua garatzen lagunduko diegu. Kooperatiboki lan egin nahi badugu, noizean behin elkar-jartzeak egin ditzakegu gelako taldeen artean. Horietan bakoitzak egiten ari denaren berri eman dezake: zein zailtasun edo hutsune dituen eta abar. Gainerako lagunen artean, behar bada, proiektua aberastu eta osatu ahal izango dute.

Osatu fitxa teknikoa: proiektuaren izenburua, egileak, nori zuzenduta, aurkezpen mota, iraupena, erabilitako bitartekoak, sinopsia, gidoia, iragarkia.

Koadernoko 19. orrialdea.

33.DENBORAK UTZITAKO ARRASTOAK IKERTZEN

Jarduera bideratuagoa eskaini nahiko bazenute, jarraian beste proiektu hau egitea proposatzen dizuegu.

Ikasleek nahi duten garaia edo gaia aukeratuko dute hemen ere. Lanean hasi aurretik, ordea, trebatzeko, hainbat ariketa egitea proposatu dizugu.

Proiektu honen helburua, batik bat, aukeratutako espazioetan edo elementuetan gertatu diren aldaketak, eta ahal dela, aldaketa horien arrazoiak zein izan diren ezagutzea izango da.

Horretarako, lehenik eta behin informazio bilketa egin beharko dute gelara argazkiak, objektuak, dokumentuak, informazio idatzia edo beste euskarriren batean ekarriz. Aukeratutako gaiari dagozkionak beharko dute izan: oraingoak eta lehengoak.

Garbi azaldu behar diegu zer den proiektuaren bidez egitea nahi duguna: herriko edo auzoko leku edo elementuren batean izan den aldaketa eta haren arrazoia ezagutzeko ikerketa egitea, adibidez. Horrekin batera, ikasiko dutena azalduko diegu: alde batetik, denboran zehar inguruan ditugun alor zehatzetan izandako aldaketak ezagutuko dituzte; eta, bestetik, aldaketa horiek eragin dituzten arrazoiak ikertuko dituzte eta ondoren besteei jakinaraziko dizkiete. Gainera, ohartuko dira kideekin izandako elkarlanak lana burutzerakoan arazoak ebazteko eta norberak aurreratzeko balio izan diela.

Lehen urratsa galdetegi bat betetzea izango da ([Galdetegia](#)). Banaka bete beharko dute galdetegia eta horrek lagunduko die gaiaren gainean duten hasierako ezagutza maila kokatzen eta zeharka ikasiko dutena ezagutzen. Proiektua amaitutakoan galdetegia berriro betetzen badute, galdetegiak alderatuz ikasi dutenaz jabetuko dira.

Bestalde, ikasleek bere inguruan egin behar duten informazio bilketan laguntzeko, hainbat urrats eta jarduera proposatu dizkizugu. Jarduera horiek aurre lan gisa aurkeztuko dizkiegu, informazio bilketa nola egin behar duten eta nola aztertu behar duten jakiteko.

a. Irudien azterketa

Hasteko, bikote bakoitzari objektu berari dagozkion bi argazki edo marrazki emango dizkiegu (tresna, jantzi, paisaia, pertsona eta abar).

Lehenik eta behin ados jarri beharko dute zein argazki den lehenari eta zein orainari dagokiona. Gero, bikoteko kide bakoitzak argazki bat hartuko du eta *etorriosa12.doc* dokumentuan dagoen gidoiari jarraituz aztertuko du.

Gidoian dauden galderak egokitu ditzakezu, kontuan izanik garrantzitsuena ikasleen behaketa zuzentzea dela. Behaketa horren helburua, argazkien arteko ezberdintasunak aurkitzea da eta aldaketa horien zergatien arrazoi zehatzak azaltzea.

Azterketa egin ondoren, argazkiak eta egindako azterketa trukatu dituzte bikotekideak idatzi duena osatzeko edo ezabatzeko ados ez dagoen kasuan.

Bien arteko kontraste hori egin ondoren, bien artean ilustrazioen ezaugarriak aztertuko dituzte (nolakoa den, zertarako balio duen eta abar) ezberdintasunak identifikatzen laguntzeko. Ezberdintasunak aurkitu ondoren, horien balizko hainbat arrazoi ondorioztatzen ahaleginduko dira. Azkenik, bi irudien azterketaren gaineko adostasunera iritsiko dira, elkarlanean.

Zer behatu:

- Bikotekideen artean gatazka sortu den deskribapena egiterakoan, ezberdintasunak aurkitzerakoan, edo identifikatutako ezberdintasunei arrazoiak aurkitzerakoan.
- Gaitasun komunikatiboak erabiliz gainditu den gatazka (entzunez, argudiatuz, bestearen argudioak ulertuz, baloratuz eta abar).
- Azken emaitzan bikotea osatzen duten bi kideen ekarpenak jaso eta hobetu diren.

b. Elkar jartzea

Gidoia ([Gidoi-eredua](#)) idatziko dugu arbelean. Bikoteka aztertu den guztiaren elkar jartzea egingo dute horretarako. Nahi izanez gero, ([Aldaketak aztertzeke gidoia](#)) gidoia erabil daiteke.

Ondoren, gelakide guztien arteko elkar jartzea egin dezakegu, batez ere, material bakoitzaren gainean identifikatu diren ezberdintasunez jarduteko.

Zer behatu:

- Bikoteen ekarpenen artean gatazka sortu den.
- Ikasleak konturatu diren gertatutako aldaketen gaineko arrazoi kontrajarriak ematen dituztela. Ohartu diren, gainera, komeni dela behatutako aldaketa hobe azalduko duen arrazoiak aurkitzeko ados jartzea.
- Gaitasun komunikatibo egokiak erabili dituzten.
- Azken emaitzan bikoteen ekarpenak jaso diren.

c. Informazio bilketa

Ondoren, informazio bilketa antolatuko dugu. Horretarako, ikasleei eskatuko diegu lehengo eta oraingo objektuak, tresnak, paisaien argazkiak, pertsonaiak, etxeak eta abar ekartzeko. Lehengo argazkietan agertzen diren lekuen gaur egungo argazkiak ez badituzue, irteera bat antolatu eta atera ditzakezue.

Zer behatu:

- Material esanguratsua ekarri duten.
- Lehenari eta orainari dagozkion materialak ekarri dituzten.

d. Ekarritako materialaren antolaketa

Ikasleek ekarritako material bakoitza lehenari edo orainari dagokion erabakitzeko elkar jartzea egingo dute. Lan hori hobeto antolatzeko, ikasle bakoitzak esan dezake hurrenez hurren, zer ekarri duen eta gelako kide guztien artean erabakiko dute lehenagokoen multzoan edo oraingoen multzoan multzokatuko duten.

Zer behatu:

- Gatazka sortu den banaka planteatutako sailkapena eta gainerako kideek pentsatzen dutenaren artean.
- Norberak agertutakoa hobetu duen adostasunera iritsi diren.

e. Ekarritako materialean agertzen diren aldaketen azterketa eta interpretazioa bikoteka

Bikote bakoitzari objektu edo argazki baten oraingo eta dagokion lehenagokoa emango zaio.

Bikotekideen artean objektuak banatu ondoren, bakoitzak berea aztertuko du gidoia ([Aldaketak aztertzeke gidoia](#)) jarraituz.

Ondoren, bikoteko bi kideen artean ikuskatuko dute lehengoaz jasotakoari dagokion oraingoa ipini dutela. Era horretan, behatutako arlo bakoitzean gertatutako aldaketa alderatu eta identifikatu ahal izango dute. Amaitzeko, aldaketaren zergatiaren azalpen laburra eskatuko diegu.

Zer behatu:

- Gatazka sortu al den bikotekideen artean ezberdintasunak identifikatu eta deskribatu edo arrazoiak aurkitzeko garaian.
- Gatazka gaitasun komunikatibo egokiak erabiliz gainditu den.
- Azken emaitzan, bi bikotekideen ekarpenak jaso eta hobetu diren.

f. Materialaren antolaketa eta taldeari eginbeharreko aurkezpena
Bildutako materialaren ezaugarriak kontuan izanik, hura hobeto aurkezteko egokiena izango den espazioa eskainiko diegu.

Bikote bakoitzak ekarri duen materiala aurkeztu eta dagokion lekuan sailkatuko du.

Aurkezpena, azterketa egiteko erabilitako gidoiaren arabera antolatuko dute. Emandako azalpenekin ados ez dagoenak edo ase ez dituen gelako beste ikasleren batek has dezake eztabaida.

Zer ebaluatu:

Erakusgai izango den materialaren antolaketa:

- Egoki sailkatu al dute?
- Materiala era argi eta koherentean banatu al dute aurkeztutako espazioan?
- Bikotea osatzen duten bi kideek lagundu al dute?

Ahozko aurkezpena taldeari:

- Biek parte hartu al dute azalpena banatuz?
- Era logikoan azaldu al dute, materialaren gaineko informazioa emanez, ezberdintasunak azalduz, eta haien zergatiak azalduz?
- Haien ahozko azalpena egokia izan al da eta lortu al dute gainerako ikaskideek ulertzea?

Ikasle bakoitzak bere auto-ebaluazioa egiteko proiektuaren hasieran bete duen galdetegia ([Galdetegia](#)) beteko du. Ondoren, emaitzak alderatuko ditu eta, azkenik, beste bi galdera gehiagori erantzungo die:

- Gustura aritu al zara zure bikotekidearekin?
- Ariketak bakarrik egin bazenitu, zein uste duzu egin ahal izango zenukeela eta zein ez?

JARDUERA2: Bikoteak osatu eta proiektua osatzeko urratsak jarraitu banan-banan. Amaitzeko, aukeratutako aurkezpena egin erabakitako moduan.

34.FOLIO BIRAKARIA OSATUZ BIRPASATZEN

Proiektuak egin aurretik eta denen artean oroimena freskatzeko, nahi izanez gero, ikasleei hitz zerrenda bat edo ikasi duten gaia edo irakurri duten testua laburbiltzen duen esaldi bat eska diezaiekegu, adibidez.

Ikasle bakoitzari bere izena kolore batez idazteko eskatuko diogu, kolore hori erabiliko dute txanda heltzen zaienean idazteko.

Kide batek bere ekarpena edo bere zatia idatziko du folioan. Ondoren, erlojuaren orratzen zentzuari jarraiki, aldamenekoari pasako dio, eta horrela jarraituko du folioak kide batetik bestera denek idazten duten arte. Hala, denek parte hartuko dute arazoaren ebazpenean. Ozenki irakur dezake kideren batek eta horrela, denen artean egindako ekarpenei esker, oroimena freskatuko dute.

JARDUERA3: Aukeratu kolore bat eta idatzi zure izena folioan. Txanda iristen zaizunean, aipatutakoari buruz dakizuna idatzi.

35. HITZEKIN JOLASTUZ GAIA OSATZEN

Landutako gaiari buruzko hainbat hitz gako idatziko ditugu arbelean. Talde bakoitzak, hitz hori erabiliz esaldi bat osatu beharko du edo horren atzean dagoen ideia azaldu.

Hitz gakoa bera izan daiteke talde guztientzat edo talde bakoitzak hitz gako zerrenda desberdina izan dezake.

Azkenik, talde bakoitzak hitz gakoekin osatutako esaldi edo ideiak elkar jarriko dituzte, eta, era horretan, gaiaren gaineko laburpena osatuko dute.

JARDUERA4: Taldea osatu, eta duzuen hitz gakoekin esaldiak osatu edo horren atzean dagoen ideia azaldu.

36. NOR GINEN ETA NOR GAREN, NOR IZANGO OTE GARA?

Nor izan ginen ezagutu dugu, eta nor garen ikusi eta aztertu dugu. Baina nor izango gara?

Ikusi ahal izan dugunez iraganean garai oparo eta distiratsuak bizitu zituen gure herriak, baina baita garai zail eta ilunak. Mende eta milurteko berri batean abiatu gara jada, eta gure ikasleak izango dira etorkizun laburrean gure herria aurrera aterako dutenak.

Egun, herritar asko ari da hainbat esparrutan lanean: arlo kulturalen, sozialean, kirolekoan, hizkuntzari lotutakoan, ingurumenekoan eta abar. Gogor lan eginez begiratzen diote, eta begiratzen diogu guk ere, geroari etorkizun hobearekin lortzeko itxaropentsu.

Garaian garaiko herritarrek aurre egin behar izan zioten zeukatenari, erabakiak hartu behar izan zituzten eta haien ondorio da, onerako eta txarrerako, gaur ezagutzen dugun herria.

Zein itxaropen ote dituzte gure ikasleek? Nola irudikatzen ote dute herria etorkizunean, edo nola irudikatzen ote dute herriaren etorkizuna?

Haiekin batera aurrera begira jartzeko aukera aparta dugu guk ere.

Hamar urte aurrera egiteko eskatuko diegu. Elkarrizketa bidez lagun diezaiekegu beren burua kokatzen: zenbat urte izango dituzten, zer egiten ari zela gustatuko litzaiekeen eta abar.

Proposatutako galderak erantzun ondoren, nolako herrian bizitzea gustatuko litzaiekeen esaldi batean idazteko eska diezaiekegu.

Ondoren, jarduera honetan sakondu nahi izanez gero, ikasleak bi taldetan bana ditzakegu. Esaldi bat aukeratu eta talde batek izan nahi dugun horretan ahalegintzeak merezi duela defendatuko du eta besteak, aldiz, ez duela merezi: argudioak prestatu beharko dituzte, abokatu bana aukeratu, eta guk epaile lana egin beharko dugu. Interesgarriena beraiek dena delako ondorioetara iristea litzateke.

Beste aukera bat, galderak erantzuten dituztenean taldean komentatzea da: kontraesanak, zailtasunak, alde positiboak, motibazioak eta abar ateratzen ahalegintzeko eskatuko diegu.

Koadernoan herriko mapa bat duzu. Mapa arbel digitalean landu nahiko bazenu, jarraibide hauei jarraituz erraz eskuratuko duzue:

<http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/>

Gaiaren bilaketa dioen leihuan ERRENTERIA ipni eta hiru aukera eskainiko dizkizu. Bigarrenaren (ERRENTERIA, herrigunea/hirigunea) aukeran BISORE KLASIKOAN MAPAren gainean klik egin.

Orrian mapa agertuko zaizu, baita haren gainean lan egiteko dituzun aukerak ere: kontsultak, bistaratzeak, tresnak, ibilbideak eta egindakoa gorde edota inprimatzeko aukera.

JARDUERA1: Egin dezagun hamar urte aurrerako jauzia. Zenbat urte izango dituzu? Ikasten aritu nahiko zenuke, lanean aritzea nahiko zenuke?

JARDUERA2: Nolako harremana izan nahiko zenuke udalerriko ingurumenarekin?

JARDUERA3: Zein elkarte edo esparrutan gustatuko litzaizuke aritzea?

JARDUERA4: Zer uste duzu gertatuko dela biztanleekin: gehitu egingo dira edo gutxitu? Biztanle kopuruak handitzen jarraitzen badu herriak handitu egin beharko du. Norantz uste duzu handituko dela?

JARDUERA5: Zer proposatuko zenuke herritarren bizi-kalitatea hobetzeko?

JARDUERA6: Nolakoa irudikatzen duzu izango dela gure udalerria eta herria 10 urte barru?

JARDUERA7: Nolakoa gustatuko litzaizuke izatea?

JARDUERA8: Hor duzu herriko gaur eguneko mapa. Zuri-beltzean dago, nahi duzun kolorea izan liteke: berdea, grisa, iluna... nahi duzuna bota eta eraiki dezakezu!!!

Koadernoko 20. orrialdea.

37. NIRE HERRIA IZATEN JARRAITUKO AL DU?

Haien ustez herrian dauden arazo larrienez eta haiek izan dezaketen konponbidez hitz egingo dugu, segidan.

Era berean, herriarekiko duten atxikimenduaren gainean arituko gara: herrian bizitzen jarraitzea gustatuko litzaiekeen eta abar.

JARDUERA1: Zein uste duzu direla gure herriak dituen arazo larrienak? Saiatu ahalik eta esparru gehienak kontuan izaten.

JARDUERA2: 10 urte barru alkate bazina, zein konponbide emango zenieke?

JARDUERA3: 10 urte barru herrian bizitzen ikusten duzu zure burua?

JARDUERA4: Herriz aldatzekotan, nora joango zinateke?

JARDUERA5: Eta auzoz aldatzekotan, nora?

Koadernoko 22. orrialdea.

38. GURE BAILARA

Jarraian, gure herritik haratago, bailarara edo eskualdera luzatuko dugu begirada. Antzinean Urumea ibaitik Bidasora bitarteko lurrek osatzen zuten gure bailara. Ondoren, Pasaiatik Irunera bitartean. Mendeetan zehar zatituz joan da bailara, herri bakoitzak bere bidea egin duelarik, bere aldetik garatuz eta indartuz.

Orain, zenbait gauzatarako, berriro elkartzen ari dira: Oarsoaldea Eskualderako Garapen Elkartea, HITZA-ko egitasmoa: OARSO BIDASOk HITZA eta abar.

Mende luzeetan elkarrengandik urrunduz joan diren herriak, askotan arerio, gaur egun elkarlanean ari dira.

Horren inguruan hausnartzea proposatu nahi dizuegu. Bakarrik noraino irits gaitezke, elkarlanean noraino; zein uste duten dela bide egokiena eta abar. Baliteke gure ikasleentzat abstraktuegia gertatzea gaia. Nahi izanez gero, beren eguneroko jardunera ekar dezakegu. Bakarrik edo talde lanean, nola aritzen diren gusturago; lan egiteko zein modutan ikasten duten gehiago; zein era gertatzen zaien aberasgarriagoa eta abar.

Jarduera honetan sakondu nahi izanez gero, Oarsoaldea Eskualderako Garapen Elkartera edo HITZAra joan gintezke, edo haietako kideak ikastetxera gonbidatu beren lanaren berri ezagutzeko. Aukera ederra izan liteke ikasleek haiei galdetzeko elkarrekin lan egitearen abantailaz, zergatik aritzen diren horrela, zergatik herri horiek eta ez beste batzuk eta abar.

Ondoren, koadernoan proposaturiko galderak erantzuteko eskatuko diegu.

JARDUERA1: Nola irudikatzen duzu izango dela etorkizuna oparoagoa: elkarlanean ala bakoitza bere aldetik. Zergatik?

Koadernoko 22. orrialdea.

39. HERRIAREN EZAUGARRI

Unitateetan ezagutu ditugu gure herria ezaugarritzen duten hainbat alde eta ikur: armarria eta hainbat logo, esaterako.

Jarraian proposatu nahi dieguna, etorkizunean irudikatu duten herri hori hobeto definitu eta ezaugarrituko duen logoa eta lema asmatzea da.

JARDUERA1: Asmatu logo bat eta lema bat etorkizuneko gure herriarentzat.

Koadernoko 22. orrialdea.

OHARRA: unitate honetan euskararen sentsibilizazioaren gainean proposatutako hainbat ariketa, EBETE hizkuntza-zerbitzuak proposatutakoetan oinarritutakoak dira.

Proiektuak eta beste ariketa batzuk, aprendizaia kooperatiboaren gaineko hainbat argitalpenetan oinarrituak dira, eta haien artean daude Vic-eko (Kataluina) unibertsitateko Psikopedagogiako departamenduak sortutakoak.

GEHIAGO JAKITEKO

BIBLIOGRAFIA

BOZAS URRUTIA, E.: *Erreterria kondairan eta ipuin-zaharretan*, Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones S.A, Donostia, 1976.

ELBERDIN, Luis: *Orereta izena eta izana*, Orereta, 1995.

ELBERDIN, Luis: *Hiria*, Orereta, 1995.

ELBERDIN, Luis: *Panier Fleuri*, Orereta, 1995.

GAMON, Juan Ignacio: *Noticias historicas de Renteria*, 1930.

GOÑI GALARRAGA, Joxeba M.: *Historia de Renteria*, Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1969.

LANDA, Mariasun/ BALZOLA, Asun: *Joxepi dendaria*, ELKAR, Donostia, 2000.

ZENBAITEN ARTEAN: *Erreterriako Historia*, Erreterriako Udala.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Erreterria barne-barnetik, galdare comunicación audiovisual. DVDa.

Gipuzkoaren jatorria, Nabarralde, 2010. DVDa.

SAREAN

ORERETA-ERRETERIA

<http://hnoiartzualdea.wordpress.com/landutako-gaiak/>

<http://oarsoaldeaezagutuz.wordpress.com/2010/03/22/oarsoaldeaezagutzeko-lezo-lh-ikastetxean-prestatutako-materialak/>

Erreterria 1:

<http://www.youtube.com/watch?v=xc4MAKSTZWA&feature=related>

Erreterria 2:

http://www.youtube.com/watch?v=99AxWTL7_70&feature=related

Erreterria 3:

<http://www.youtube.com/watch?v=auOZ8sOokMk&feature=related>

Erreterria 4:

<http://www.youtube.com/watch?v=E6076F5KLeQ&feature=related>

www.gipuzkoamuseobirtuala.net

Xenpelar

<http://www.bertsozale.com/euskara/nordanor/nordanor-datuak.php?id=+++1660&orri=1>

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=431>

<http://www.euskara.euskadi.net/r59->

[bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp)

Xenpelarren BERTSOAK

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/X/Xenpelar020.htm>

Jaurtalkol

<http://www.armiarma.com/emailuak/itxaropena/jaut.htm>

<http://hedatuz.euskomedia.org/5557/>

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=290>

<http://www.youtube.com/watch?v=auOZ8sOokMk&feature=related>

KOLDO MITXELENA

<http://www.euskara.euskadi.net/r59->

[bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp)

http://www.blogari.net/euskargazki/2010/12/07/koldo_mitxelena_hizkuntz_alariaren_sortet

<http://www.youtube.com/watch?v=auOZ8sOokMk&feature=related>

XABIN OLASKOAGA

<http://www.youtube.com/watch?v=auOZ8sOokMk&feature=related>

ERRAMUN ASTIBIA

<http://zubitegia.armiarma.com/?i0390>

LAU HAIZETA EUSKALDUNON ELKARTEA

www.youtube.com/watch?v=E'6076F5KleQ&feature=related

OARSOALDEA ESKUALDEAREN GARAPENERAKO ELKARTEA

<http://www.oarsoaldea.net/index.php?newlang=eus>

OARSO BIDASOKO HITZA

<http://www.oarsoaldekohitza.info/>